



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

UDAL PLENOA
Bilkura ezohikoa

BILKURA DATUAK

EGUNA: 2014/03/19	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 18:00 - 20:05	

BILDUTAKOAK:

Lehendakaria: Inazio Azkarragaurizar Larrea (BILDU)

Zinegotziak: Amaia Larrañaga Galdos (BILDU)
Ander Rodriguez Lejarza (BILDU)
Josebe Landaluze Ruiz de Alegria (BILDU)
Maidor Morras Azpiazu (BILDU)
Omer Arregi Biain (BILDU)
Iratxe Zeziaga Mendizabal (BILDU)
Juan Antonio Barriocanal Arrieta (BILDU)
Joseba Erramun Askasibar Zendoia (BILDU)
Juan Carlos Garitano Ezcurra (EAJ-PNV)
Maria Ubarrechena Cid (EAJ-PNV)
Ibon Arrupe Aldecoceta (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Aritz Arrieta Kabiketa (PSE-EE)
Raquel Diaz Larracoetxea (PSE-EE)
Francisco Garcia Raya (PSE-EE)
Miren Lorea Lana Jauregi (PSE-EE)
Joxe Etxeberria Iztueta (ARALAR)

Idazkaria: Iñigo Garitano Larrañaga

Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.

BILDU EZ DIREN
UDALKIDEAK:

Josu Pereda Leceta (BILDU)
Kepa Urteaga Garcia (BILDU)
Iciar Lamarain Cenitagoya (PP)

BERTARATZE ETA
IRTEERAK:

Joxe Etxeberria zinegotzia 19:55etan irten da bilkura gelatik, 18. puntuaren eztabaidan (bozketan ez du parte hartu).



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

GORA BEHERAK

Gai zerrendako 13. puntua onartu ondoren, 19:00etan, Plenoaren bilkura eten egin da 30 minutuz, udalbatzarkide guztien adostasunarekin, ordu horretan Herriko Plazan deituta dagoen agerraldian parte hartzeko. Agerraldi horrekin Mungian, atzoko egunez indarkeria matxistaren ondorioz Andina Pereira de Brito emakumearen erahilketa salatu nahi izan da.

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Arratsaldeon guztioi. Plenoa hasi baino lehen, gogor gaitzesta nahi dut Mungian gertatutako erahilketa sexista. Eta berriro horrelako erasorik ez gertatzeko, hemendik animatzen dut guztioi parte hartzen Herriko Plazan 19:00etan burutuko den kontzentrazioan. Espero dut Plenoa 19:00ak baino lehen bukatzea. Horrela ez bada eten egingo dugu kontzentrazioan egoteko

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2014ko otsailaren 4an egindako bilkuraren akta onartu du.

2.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA ZIRKULAZIOARI ETA HIRI BIDEEN ERABILEREI BURUZKO UDAL ORDENANTZA, JENDAURREKO GARAIAN AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK AZTERTU ONDOREN (2013ZZER0186).

Udal Plenoak, aho batez, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Udaltzaingoak txostena aurkeztu du, azalduz batetik, Luis Ruiz de Austri jaunak alegazio idatzia aurkeztu duela “*Zirkulazioari eta hiri bideen erabilerei buruzko udal Ordenantzaren*” hasierako onarpen akordioaren ondoren zabalduko erreklamazio eta iradokizun epean, alegazioen inguruan proposamena azalduz, eta bestetik, proposatuz Ordenantzaren behin-betiko onarpena aurkezturiko alegazioak aztertu, eta beraien inguruan erabaki ondoren.

Luis Ruiz de Austri egindako alegazioak hauek dira:

1.- Ordenantzaren bosgarren tituluan jasotzen direla 40km/orduko zirkulatzeko kaleak eta bere ustez Zarugalde kalea (Monterron aldean hasten den zatia batez ere), Otalora Lizentziatua kalea eta Arrasate Pasealekua kaleak ez lirakeke hemen barneratuta egon behar, hau da, egokiagoa ikusten du 30km/orduko zirkulatzeko kaleak izatea horiek.

2.- Ez du uste beharrezkoa denik titulu oso bat bizikleten zirkulazioa arautzeari bideratuta egotea, eta atala ezabatzea proposatzen du.



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

3.- Proposatzen du bideen erabiltzaileen arteko bizikidetza sustatzeko informazio, kultura eta ekintzak zabaltzeak.

Idatzia aztertu ondoren Udaltzaingoak aurkeztutako txostenak hurrengoa azaltzen du:

- a) Udal Plenoak 2013ko abenduaren 17an hasierako onarpena eman ziola "Zirkulazioari eta hiri bideen erabilerei buruzko udal Ordenantza"ri.
- b) 2014ko urtarrilaren 8an argitaratu zela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aipatutako akordioa eta hasierako onarpena jende aurrean jartzea hogeita hamar egunean interesdunek bidezkotzat jotzen dituzten alegazioak eta iradokizunak egin ditzaten.
- c) Aipatutako epean aurkezturiko alegazioak Luis Ruiz de Austri jaunak egindakoak izan dira.
- d) Kalearen ezaugarriak ikusita posible dela Zarugalde kalean (Monterron eta Muxibarreko errotonda tartean, Zarugalde kalea 6 eta 30 zenbakien artean) 30km/orduko gehienezko abiadura muga ezartzea. Otorra Lizentziatua kalea eta Arrasate Pasealekuaren kasuan ordea 40km/ordu gehienezko abiadura mantentzea proposatzen da eta ez da eskatutako aldaketa egiteko arrazoirik ikusten.
- e) Bestalde, informatzea Luis Ruiz de Austri jaunari bizikletaren erabilera gora doala ez Arrasaten bakarrik baizik eta udalerrri guztietan eta gainera garraio modu honen aldeko kanpainak gero eta gehiago zabaltzen ari direla Instituzio Publiko ezberdinen eskutik, ondorioz, egokia eta oso beharrezkoa ikusi dela titulu bat osorik gai hau arautzera bideratzea.
- f) Eta azkenik jakinarazi kontutan izango dela bideen erabiltzaileen arteko elkar bizitzaren alde egindako proposamena.

Lehen azaldutakoa ikusirik, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako batzordeak hurrengoa proposatzen du:

1.- Onartzea Zarugalde kalean (Monterron eta Muxibarreko errotonda tartean, Zarugalde kalea 6 eta 30 zenbakien artean) gehienezko abiadura 30km/ordukoa izatea eta bestalde, Otorra Lizentziatua kalean eta Arrasate Pasealekuaren bide sailkapena aldiz Ordenantzaren behin behineko publikazioan jaso bezala mantentzea.

2.- Ez onartzea "Zirkulazioari eta hiri bideen erabilerei buruzko udal ordenantzaren" III. titulua (bizikleten zirkulazio erregulazioa) ezabatzeko eskaera bizikletak gure gizartean duen garrantzia dela eta.

3.- Jakinaraztea Luis Ruiz de Austri jaunari kontutan izango direla idatzian egindako bestelako proposamenak.

4.- Ordenantza jendaurrean jarri den epean aurkeztutako alegazioak erantzun ondoren eta onartutako aldaketak jasota, Toki Araubidearen Oinarri-Arauk arautzen dituen 7/1985 Legearen 49.



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

artikuluko azkeneko paragrafoak ezarritakoaren arabera, Ordenantza behin-betikoz onartutzat jotzea proposatzen da, eta ondorioz Ordenantzaren testu osoa argitara ematea proposatzen da (Ikus I. eranskina).”

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Interbentziorik?. Bozketara pasatuko gara.

Bozketaren emaitza: **Diktamena AHO BATEZ ONARTUA izan da.**

Bertaratutakoak	18	
Aldeko botuak:	18	BILDU (9), EAJ-PNV (4), PSE-EE (4) eta ARALAR (1)
Aurkako botuak:	0	
Abstentzioak	0	

3.- KURTZETXIKI MENDIAREN KONTSERBAZIOARAKO ETA INGURUMEN BALIABIDEAK SUSTATZEKO PROIEKTUA GAUZATZEKO BEHARREZKO LURZATIA ESKUALDATZEKO HITZARMENA SINATZEA (2013HDJA0001).

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“**IKUSIRIK** Udal Plenoak, 2013ko ekainaren 4an egindako bilkuran, besteak beste, honako akordioa hartu zuela:

“Kurtzetxiki mendiaren kontserbazioarako eta ingurumen baliabideak sustatzeko proiektua onartzea eta proiektua burutzeko beharrezko diren ondasun eta eskubideak eskuratzeko desjabetzeko espedienteari hasiera ematea”.

IKUSIRIK aurreko eraginetarako akordioan bertan eskuratu beharreko ondasunen eta horietako titularraren zerrenda zehatza eta banan-banakakoa jaso zela.

Horren arabera, eskuratu beharreko lurzatia Gipuzkoako Landa Higiezin Katastroko 1-40 lursailean kokatzen da.

Lursail horren jabeak José M^a Altuna Uribeetxebarria jauna eta Pilar Altuna Uribeetxebarria andrea dira.

IKUSIRIK testuinguru horretan Arrasateko Udalak hainbat gestio egin dituela 1 poligonoko 40 lursailaren jabeekin desjabetze prozesuari irtenbidea emateko.

Hori horrela, 2013ko ekainaren 20an buruturiko bileran partzelaren titularren ordezkariak aurreikusitako bideari alternatiba bat aurkeztu zioten Arrasateko Udalari (bide berri bat zabaltzea partzelaren limitean – ipar ekialdean).



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

IKUSIRIK Udalaren Ingurumen batzordetik bidearen alternatiba baloratu ondoren ondorioztatu dutela proposatutako irtenbidea egokia dela eta alternatiba horrek ez dituela eragozten Kurtzetxikin gauzatu behar den proiektuaren helburuak.

Bestalde, aipatutako proiektua gauzatu ahal izateko behar den lurzattia Udalak eskuratzeko proposamenaren zehetasunak ere adostu dituzte:

Bidearen ezuagarriak:

Zabalera: 5 metro

Luzera: Otxiagako bidetik Kurtzetxikiko udal sailera, terrenoan bertan zehaztu dena eta espedientean gorde den planoan azaltzen dena.

Azalera guztia: 765 m²

Prezioa:

Zoruaren balorea: 0,20 "/m²

Zuhaitzak-Egurra: 50 " Pinuko, aleko.

Beste ezuagarriak:

Bidearen eta partzelaren limitean itxitura egingo da.

Gastuak:

Lurzatiaren eskualdatzeak eragingo dituen gastuak, notaritzakoak eta erregistrokoak barne, eta baita goian

KONTUTAN IZANIK 1 poligonoko 40 lursailaren jabeek eta Arrasateko Udalak dagokion hitzarmena formalizatzeko adostasun batera heldu direla, hasitako desjabetzapen espedientea bertan behera uzteko eta *Kurtzetxiki mendiaren kontserbazioarako eta ingurumen baliabideak sustatzeko proiektua* gauzatzeko behar den lurzattia Udalak eskuratu ahal izateko.

Hirigintza batzordeak Udalbatzarrari honako akordioa hartzea proposatu dio:

I.- *Kurtzetxiki mendiaren kontserbazioarako eta ingurumen baliabideak sustatzeko proiektua* gauzatzeko behar den lurzattia Udalak eskuratu ahal izateko, 1 poligonoko 40 lursailaren jabeak diren José M^a Altuna Uribeetxebarria jauna eta Pilar Altuna Uribeetxebarria andrearekin dagokion hitzarmena sinatzea ontzat ematea, jarraian azaltzen diren hitzarkinen arabera:

"LEHENENGOA.- *Gipuzkoako Landa Higiexin Katastroko 1 poligonoko 40 lursailaren jabeek Arrasateko Udalari eskualdatzen diote lursail horren lurzatti bat, jarraian deskribatzen dena:*

765 m²ko azalera duen lurzattia, lerro-formakoa eta luzanga, 1 poligonoko 40 lursailetik bere ertzean segregatzen dena, I/IM. H/HE norabidean, 1-109 zk.ko lursailak eta Otxiaga izenarekin ezagutzen den tokira doan bide publikoa lotzeko erabiliko dena.



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

Eskualdatzen den lurzatiaren mugak honakoak dira: Iparraldean, Lorenza Altuna Mondragón andrea titularra den 1 poligonoko 38 lursaila; hegoaldean, banantzen denetik jatorriko lursaila; ekialdean, Otxiagako bidea ; eta mendebaldean, Arrasateko Udala titularra den 1 poligonoko 109 lursaila.

Lurzati hori bere baitan hartzen duen lursailak Jabetza Erregistroan honako datuak ditu: 25. liburua, 117. orria, 1081. finka, 5. inskripzioa+

BIGARRENA- Aurreko bitzarkinean deskribatutako lurzatiaren eskualdatzearen prezioa zenbateko honetan finkatzen da:

- Lurrak: 153 " (765 m² x 0,20 " / m²)
- Zuhaitzak-Egurra: 1.450 " (29 pinu x 50 " aleko).
- Prezioa, guztira, 1.603 " koa da.

HIRUGARRENA- Prezio hori hitzarmena sinatzen den egunean ordainduko da.

LAUGARRENA- Lurzatiaren eskualdatzeak eragingo dituen gastuak, notaritzakoak eta erregistrokoak barne, Udalaren gain izango dira. Horren barira, lurzati saltzen dutenek konpromisoa hartzen dute, Udalak eskriturak sinatzeko aukeratzen duen unean bertaratuko direla, eta hitzarman honek diona jasotzeko eragozpenik jarriko ez dutenaren ingurukoa.

BOSGARRENA- Udalak hasitako desjabetzapen espedientea bertan behera uzteko konpromisoa hartzen du, Kurtzetxiki mendiaren kontserbazioarako eta ingurumen baliabideak sustatzeko proiektua irtenbide alternatibo baten bidez gauzatzeko behar den lurzati eskuratu baita.

SEIGARRENA- 1 poligonoko 40 lursailaren jabeen aldetik bidearen erabilera baimentzeko konpromisoa hartzen du Udalak, baldin eta erabilera hori justifikatuta balego eta alde aurretik dagokion baimena eskatzen bada."

II.- Ahalmena ematea Alkate Lehendakariari edo legez ordezkatzan duen Alkateordeari aipatutako hitzarmena sinatzeko eta bertan adostutakoa gauzatzeko egin beharreko izapideak burutzeko.

III.- Adieraztea aipatutako hitzarmena sinatzeak bere garaian hasitako desjabetzapen espedientea bertan behera uztea suposatzen duela."

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Interbentziorik?. Bozketara pasatuko gara.

Bozketaren emaitza: **Diktamena AHO BATEZ ONARTUA izan da.**

Bertaratutakoak	18	
Aldeko botuak:	18	BILDU (9), EAJ-PNV (4), PSE-EE (4) eta ARALAR (1)
Aurkako botuak:	0	
Abstentzioak	0	



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

4.- BERRESTEA TOKIKO GOBERNU BATZARRAK BEHIN BEHINEKOZ ONARTUTAKO ARRASATEKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN 7.ALDAKETA PUNTUALA (ASUBEALDE ETA ALTZAURTI): AGIRIAREN DOITZEAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO BATZORDERA (COTPV) BIDALTZEKO (2013HPOA0001)

Udal Plenoak, aho batez, Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko martxoaren 3an hartutako erabaki hau berrestea eta akordio mailara jasotza erabaki du:

“Udal Plenoak, 2013ko abenduaren 17an egindako bilkuran, “ARRASATEKO HIRI ANTOLAMENDUAREN EGITAMU OROKORRAREN 7. ALDAKETA PUNTUALA”ren agiria behin behinekoz onartu eta gero, agiria Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera (COTPV) bidali zen, dagokion txostena eman dezan.

Udalaren Zerbitzu Teknikoek agiria Lurralde Antolamenduko Batzordearekin batera aztertu dute eta azterketa horretatik ondorioztatu da pare bat zuzenketa egin behar direla.

Aldaketa horiek hurrengo biak dira:

- 01.- Altzaurtiko eremuaren muga zehaztea
- 02.- Bi eremu berrien izendapena Lurralde Antolamenduko jarraibideen antolamendukategoriaren terminologiaren arabera zehaztea

Aldaketa horiek Udalaren Zerbitzu Teknikoek prestatutako eranskinean jasota geratu dira.

Hori horrela, hauxe proposatu du Hirigintza batzordeak:

I.- “ARRASATEKO HIRI ANTOLAMENDUAREN EGITAMU OROKORRAREN 7. ALDAKETA PUNTUALA”ren agiriaren eranskina, goian azaldutako zuzenketak jasotzen dituen, ontzat ematea.

II.- Eranskin hori Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera (COTPV) bidaltzea, aipatutako aldaketa puntualaren inguruan Batzorde horrek dagokion txostena eman dezan.

Akordioa Udalbatzarrak berretsi beharko du, egiten duen hurrengo bilkuran.”

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Interbentziorik?. Bozketara pasatuko gara.

Bozketaren emaitza: **Diktamena AHO BATEZ ONARTUA izan da.**

Bertaratutakoak	18	
Aldeko botuak:	18	BILDU (9), EAJ-PNV (4), PSE-EE (4) eta ARALAR (1)
Aurkako botuak:	0	
Abstentzioak	0	



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

5.- DEJAR SIN EFECTO LA TRAMITACIÓN DEL PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA DEL ÁMBITO A.E. 97.- ZIGARROLA (2012HENK0001).

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, aprueba y eleva a la categoría de acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión de Urbanismo:

“Con fecha 14 de octubre de 2013, la Junta de Gobierno Local resolvió aprobar inicialmente el documento de “PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA DEL AMBITO 97.- ZIGARROLA” (modificación de la ordenación pormenorizada del ámbito) y someterlo a información pública.

Además, en dicho acuerdo se determinó expresamente, la suspensión, por el plazo máximo de un año, del otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias en el ámbito de referencia, A.E. 97.- ZIGARROLA, en el que las nuevas determinaciones planteadas suponen modificación del régimen urbanístico vigente.

En el período de información pública se han presentado 3 escritos de alegaciones, uno por parte de la empresas “AZK TALDEA, S.A.” y “GOISOLUTIONS, S.L.”, otro por la empresa “JOSE MARIA GALLASTEGUI Y CIA, S.A.” y el tercero por las empresas “AIZPURUA Y ARANA, S.L.” y “ORMAK CONSTRUCCIÓN, S.L.”, cuyo contenido sucinto es el siguiente:

1.- Escrito presentado por “AZK TALDEA, S.A.” y “GOISOLUTIONS, S.L.”:
AZK TALDEA, SA Y GOISOLUTIONS, SL desarrollan su actividad en el pabellón señalado con el nº 2 de Osinaga kalea, y según el PGOU su uso principal es el de actividad económica industrial mixta.

Según el PGOU la superficie mínima del local será de 300 m² construídos en los cuales no cabe incluir los elementos de comunicación vertical.

El local ocupado por AZK TALDEA, SA tiene una superficie de 447,50 m² y el ocupado por GOISOLUTIONS, SL, 300 m². Para AZK TALDEA, SA el local no ofrece espacio suficiente para albergar las instalaciones y la plantilla de la empresa, y por el contrario, el local de GOISOLUTIONS, SL resulta excesivo para la actividad que se desarrolla en el mismo.

Por lo anterior, los alegante solicitan que se introduzca la posibilidad de reducir la superficie mínima de lotización a 200 m². El hecho de que los locales tengan una superficie mínima de 200 m² en lugar de 300 m² en nada afecta al desarrollo del ámbito ni supone repercusión alguna para el cumplimiento de los fines del planeamiento de la zona. Entienden además, que dicha superficie es además compatible con el objetivo de la norma de impedir la excesiva fragmentación de los pabellones industriales, siempre que se mantenga la limitación del número de locales resultantes (actualmente es de 5 locales por cada 1000 m² de ocupación en planta por la edificación).

El Plan Especial debiera abandonar criterios rígidos válidos en otra época y ser flexible y adaptable a las necesidades que en cada coyuntura económica se presenten, colaborando con el desarrollo económico y no suponiendo un freno para el ejercicio de actividades empresariales.

2.- Escrito presentado por “JOSE MARIA GALLASTEGUI Y CIA, S.A.”:

La alegante manifiesta su disconformidad con la propuesta de ordenación contenida en el documento objeto de exposición pública, dado que limita las expectativas que maneja para salvar la difícil situación económica que atraviesa en estos momentos:

1.- Antecedentes.

JOMA es una empresa fundada por D. José M^a Gallastegui en el año 1942. La actividad evoluciona de la fabricación de candados y cerraduras para mueble, a sus actuales fabricados para el canal de ferretería, destacando como producto principal, el buzón.

El principal canal comercializador –el ferretero- ha experimentado como consecuencia de la crisis un cambio de costumbres de compra. Por un lado, disminuye al máximo el mantenimiento de stocks de producto y, por otro, se exige en contrapartida un servicio inmediato al proveedor y su consiguiente apalancamiento y mantenimiento de stocks. Además, aparecen nuevos competidores en el canal. Competidores distribuidores que basan su oferta en producto de bajo precio y costos de origen asiático.



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

Paralelamente se ha producido una fuerte disminución del consumo y la caída del sector de la construcción, sector cuya evolución está fuertemente ligada al consumo del producto estrella (el buzón).

Como consecuencia de todo, JOMA ha disminuído de forma radical sus ventas. Actualmente se ha recurrido a un expediente de regulación temporal de empleo con el objeto de disminuir las pérdidas del mismo y mantener el máximo empleo.

La empresa se encuentra inmersa en la realización de un Plan Estratégico que gira en torno a tres grandes ejes:

- Plan de Innovación y Desarrollo del producto
- Reingeniería de procesos y renovación de recursos productivos. Plan de inversiones en ingeniería y maquinaria
- Adecuación de las instalaciones productivas:

Las actuales instalaciones productivas están sobredimensionadas y obsoletas para las necesidades de la empresa. Las nuevas necesidades se estiman en una superficie aproximada de 2.500 m² libres de columnas y de mayor altura útil que la actualmente disponible.

JOMA estima que de no conseguirse la materialización de las necesidades de inversión derivadas de este Plan, se vería abocada al cierre. Por todo ello, JOMA apuesta por la inversión, lo que conllevará al mantenimiento de los puestos de trabajo, la creación de nuevos puestos en corto plazo y la generación de actividades de subcontratación que generen valor en el entorno de Arrasate.

JOMA no cuenta con los recursos financieros necesarios para afrontar las acciones derivadas del plan estratégico, por ello trabaja con diferentes alternativas. Una de ellas pasaría por la venta de las actuales instalaciones para la generación de los recursos suficientes que permitan afrontar la ocupación de unas nuevas instalaciones en Arrasate, así como para afrontar las necesarias inversiones en ingeniería y medios productivos. Por ello a través de profesionales de prestigio está concretando un plan de desarrollo de la parcela que permita su venta a terceros operadores interesados en ubicarse en Arrasate.

2.- Disconformidad con el contenido de la modificación.

La nueva ordenación contemplada en el documento de modificación de Plan Especial supone una evidente limitación a las expectativas de JOMA de venta de fincas de su propiedad, al eliminar la posibilidad contemplada en el vigente PGOU de transformar las parcelas de actividad económica industrial común en parcelas de actividad económica industrial mixta.

Reitera que el eje de la actuación que permitirá a JOMA salir de la actual crisis se fundamenta en:

- El cumplimiento del Plan Estratégico
- La venta de las fincas al objeto de posibilitar la financiación de sus objetivos.
- La permanencia de JOMA, manteniendo (1) su actividad fabril en nuevas instalaciones ubicadas en Arrasate adecuadas a sus futuras necesidades, y (2) su domicilio social en Arrasate.

Por todo lo anterior, solicita que las fincas propiedad de JOMA sean excluídas del Plan Especial, manteniendo en cuanto a las mismas, la posibilidad de transformación de las parcelas de actividad económica industrial común en parcelas de actividad económica industrial mixta contemplada en el vigente PGOU.

3.- Escritos presentados por "AIZPURUA Y ARANA, S.L." y "ORMAK CONSTRUCCIÓN, S.L.":

Escrito presentado el 25 de noviembre, con número de registro de entradas 10811:

La sociedad AIZPURUA Y ARANA, SL es propietaria de la parcela E.1.b y la sociedad ORMAK CONSTRUCCIÓN, SL de la parcela E.2.

Habida cuenta que no se les ha notificado directamente la aprobación inicial del Plan Especial de Ordenación Urbana (dado que se notificó a los anteriores propietarios), han conocido dicha aprobación el pasado 19 de noviembre. Por ello, presentan con premura un escrito en fecha 25 de noviembre manifestando que presentarán otro escrito que complemente al presente.

Alegaciones referentes a la parcela E.1



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

Las propuestas gráficas reflejadas en los planos 1 y 2 del Plan Especial no son acordes ni con las contenidas en la “Modificación Puntual del PERI del Area A-20, en relación a la parcela del Hostal Musakola”, de enero de 2003, ni con las decisiones adoptadas con posterioridad por el propio Ayuntamiento en relación con la parcela E.1. Así:

- En los planos se delimita una única parcela denominada E.1, conformada por los terrenos vinculados tanto a la gasolinera existente como al antiguo Hostal Musakola.

Sin embargo, la “Modificación Puntual del PERI del Area A-20, en relación a la parcela del Hostal Musakola” distinguía dos parcelas, la E.1.a (asociada a la gasolinera existente) y la E.1.b (asociada al antiguo Hostal Musakola).

Procede mantener las previsiones reguladoras de la existencia de esas dos parcelas urbanísticas, en sustitución de aquella única.

- Mediante resolución de 9 de enero de 2006, el Ayuntamiento concedió licencia de segregación de la citada parcela E.1, dando lugar a la E.1.a y la E.1.b. Esta segregación se encuentra inscrita en el Registro de la Propiedad de Bergara.

Debido a que la existencia de las dos parcelas es una realidad, solicitamos se reajuste en este sentido el Plan Especial de Zigarrola.

Escrito presentado el 28 de noviembre, con número de registro de entradas 10935:

Presentan un escrito complementario al presentado el 25 de noviembre de 2013.

1.- Idoneidad del uso industrial mixto en las parcela E.1.b y E.2

Como antecedentes urbanísticos expone los siguientes:

- Mediante la “Modificación Puntual del PERI del Area A-20, en relación a la parcela del Hostal Musakola”, se estableció que el uso hotelero, entre otros, era urbanísticamente adecuado para su implantación en la parcela E.1 (de la que formaba parte la parcela E.1.b).
- Más adelante, como contestación a una información urbanística, mediante resolución de 20 de septiembre de 2011, el Ayuntamiento indicó expresamente que el uso de actividad económica industrial mixta, y más en concreto, la actividad de supermercado (actividad comercial de tamaño medio del sector de la alimentación) podía ser autorizado e implantado en las parcelas E.1.b y E.2, objeto de la consulta.

Esos antecedentes son para las sociedades alegantes una muestra clara de la idoneidad de la implantación de usos de actividades económicas distintos del industrial común en las citadas parcelas.

El Plan Especial debiera ser reajustado, permitiendo el uso industrial mixto en dichas parcelas. En caso contrario, distintas gestiones, decisiones, etc. realizadas y adoptadas por la propiedad en base a dichos antecedentes quedarían sin valor alguno, generando perjuicios que deberían ser objeto de la correspondiente indemnización.

2.- El uso industrial mixto es urbanísticamente adecuado en el ámbito Zigarrola

El PGOU refleja y materializa su objetivo de hacer de Zigarrola un ámbito destinado a usos de actividades económicas de carácter diverso y heterogéneo. Propuesta totalmente acorde con las características urbanísticas del ámbito como de su entorno, en el que cabe destacar la presencia de importantes desarrollos residenciales.

Frente a ello, el nuevo Plan Especial prohíbe nuevas implantaciones de usos industriales mixtos, entendiendo las alegantes que la justificación contenida en el Plan Especial no es suficiente.

Por ello, solicitan el reajuste del Plan Especial objeto de exposición pública, en el sentido de autorizar el uso industrial mixto en Zigarrola, o cuando menos en las parcelas E.1.b y E.2 del mismo, al ser acorde con las características urbanísticas de ese entorno territorial.

3.- El carácter estructural o pormenorizado de las previsiones del vigente PGOU

Al ser el PGOU de Arrasate anterior a la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo, la inclusión de las previsiones establecidas en aquel Plan en las escalas de ordenación estructural y pormenorizada, de acuerdo con las pautas fijadas a ese respecto en dicha Ley, requiere la correspondiente y rigurosa justificación.



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

Entiende que lo anterior no es algo tan sencillo como coger la ficha urbanística del ámbito AE 97.- Zigarrola y concluir que las previsiones del epígrafe “II Régimen urbanístico general” son las propias de la ordenación estructural y que las del epígrafe “IV Régimen urbanístico pormenorizado” son las propias de la ordenación pormenorizada.

Una conclusión como la anterior equivaldría en realidad a considerar que las previsiones de los artículos 43, 48 y 49 (y por extensión de los artículos 36 a 55, ambos incluidos) de las Normativa Urbanística del Plan General, incluida la propia regulación e identificación de las zonas globales contenida en él, tienen la naturaleza propia de la ordenación pormenorizada.

Frente a lo anterior, las sociedades alegantes entienden que el conjunto de las previsiones contenidas en los artículos 36 a 55 tienen la naturaleza propia de las determinaciones de ordenación estructural. Tienen esa naturaleza los artículos 43, 48 y 49 de la Normativa Urbanística, incluidas las referencias a estos contenidas en el epígrafe IV de la ficha urbanística de Zigarrola. Por ello, la modificación de esas previsiones, incluidas las del epígrafe IV, requiere la tramitación de un expediente de modificación de planeamiento general.

Otra de las previsiones de ordenación estructural es la relacionada con la fijación de la edificabilidad urbanística, del uso característico y de los usos compatibles que se prevean, con indicación del porcentaje máximo de edificabilidad urbanística correspondiente a estos últimos (artículo 53.1.c). A este respecto, en la actual ficha del PGOU se señala que el aprovechamiento de uso industrial mixta es de 1.342 m² (c) y, sin embargo, en el Plan Especial aprobado inicialmente dicho aprovechamiento correspondiente al uso industrial mixto se fija en 10.308 m². Ante lo anterior, realizan las siguientes consideraciones:

- El Plan Especial incrementa la edificabilidad urbanística total del ámbito. Se incide en una previsión de carácter estructural.
- El Plan Especial reajusta los criterios reguladores de la implantación del uso característico y de los usos compatibles.

A este respecto se ha de tener en cuenta que en atención a lo establecido en el artículo 53.2.c de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo, la propia determinación de los criterios de implantación del uso característico y de los usos compatibles en una zona global, incluida la indicación del porcentaje máximo de edificabilidad urbanística correspondiente a estos últimos, constituye una determinación de ordenación estructural.

Por lo tanto, el Plan Especial inicialmente aprobado no es un documento urbanístico adecuado para la consecución de los objetivos planteados.

Solicita que se le tengan en cuenta las alegaciones expuestas.

Visto el informe elaborado por los Servicios Técnicos Municipales y teniendo en cuenta que, una vez analizado el contenido de los escritos de alegaciones presentados y tras realizar una nueva reflexión global acerca de la propuesta recogida en el documento en tramitación, procede dar contestación a dichos escritos en los términos siguientes:

1.- Escrito presentado por “AZK TALDEA, S.A.” y “GOISOLUTIONS, S.L.”:

- Vista la propuesta realizada por los alegantes de reducir de 300 m² a 200 m² la superficie mínima de lotización de las parcelas de actividad económica industrial mixta, ésta no se considera adecuada. Y no se considera adecuada porque ese tipo de locales (menores de 300 m²) se pueden localizar en zonas urbanas residenciales, siendo más apropiado usar el patrimonio construido existente en esas zonas antes de fomentar la habilitación de otras nuevas en lugares cuya vocación está más orientada a locales de mayor tamaño. Por ello se seguirá manteniendo la superficie mínima de lotificación de 300 m² en la vigente ordenación contemplada.

2.- Escrito presentado por “JOSE MARIA GALLASTEGUI Y CIA, S.A.”:

- A la vista de los escritos de alegaciones presentados al documento de “Plan Especial de Ordenación Urbana del ámbito 97.- ZIGARROLA” (modificación de la ordenación inicialmente aprobado), se ha realizado una nueva reflexión global acerca de la propuesta planteada en dicho documento.

- Tras la reflexión realizada la Comisión de Urbanismo ha concluido que no es adecuado continuar con la tramitación de la modificación puntual iniciada, entendiéndose que la misma puede obstaculizar la implantación de las actividades económicas en el Municipio.



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

- Por ello, se dejará sin efecto la tramitación de aprobación de “Plan Especial de Ordenación Urbana del ámbito 97.- ZIGARROLA” iniciada mediante acuerdo adoptado por la Junta de Gobierno Local en fecha 14 de octubre de 2013.

3.- Escritos presentados por “AIZPURUA Y ARANA, S.L.” y “ORMAK CONSTRUCCIÓN, S.L.”:

- A la vista de los escritos de alegaciones presentados al documento de “Plan Especial de Ordenación Urbana del ámbito 97.- ZIGARROLA” (modificación de la ordenación inicialmente aprobado), se ha realizado una nueva reflexión global acerca de la propuesta planteada en dicho documento.

- Tras la reflexión realizada la Comisión de Urbanismo ha concluido que no es adecuado continuar con la tramitación de la modificación puntual iniciada, entendiéndose que la misma puede obstaculizar la implantación de las actividades económicas en el Municipio.

- Por ello, se dejará sin efecto la tramitación de aprobación de “Plan Especial de Ordenación Urbana del ámbito 97.- ZIGARROLA” iniciada mediante acuerdo adoptado por la Junta de Gobierno Local en fecha 14 de octubre de 2013.

Esta Comisión de Urbanismo propone al Pleno de la Corporación la adopción del siguiente acuerdo:

I.- Contestar a las alegaciones formuladas en los términos arriba expuestos.

II.- Dejar sin efecto la tramitación de la aprobación de “Plan Especial de Ordenación Urbana del ámbito 97.- ZIGARROLA” iniciada mediante acuerdo adoptado por la Junta de Gobierno Local en fecha 14 de octubre de 2013.

III.- Levantar, en consecuencia, la suspensión del otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias en el ámbito A.E. 97.- ZIGARROLA, determinada mediante el citado acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 14 de octubre de 2013.

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Interbentziarik?. Bozketara pasatuko gara.

Bozketaren emaitza: **Diktamena AHO BATEZ ONARTUA izan da.**

Bertaratutakoak	18	
Aldeko botuak:	18	BILDU (9), EAJ-PNV (4), PSE-EE (4) eta ARALAR (1)
Aurkako botuak:	0	
Abstentzioak	0	



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

6.- ADMINISTRAZIO KLAUSULEN AGIRIA ONARTZEA, UARKAPEN ETA ZERRAJERAN DAUDEN HAINBAT LOKAL ENKANTE PUBLIKOZ INOENTZEKO (2012HENK0001)

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

oNafarroa etorbidea 4-6 zenbakietan eta Txaeta kalea 1 zenbakian kokaturiko udalaren jabetzakoak diren 6 merkataritza lokal eta Uarkape kalea kokatzen diren beste 10 lokal batzuk enkante bidez inorentzea arautuko duen Klausula Administratibo Partikularren Orria aurkeztu da.

Enkantearen helburua da jarraian azaltzen diren lokalak, beraien deskripzioak eta ezaugarriak pleguan jasotzen direnak, kostubidezko titulu gisa inorentzea:

NAFARROA ETORBIDEAN ETA TXAETA KALEAN KOKATUTAKO LOKALAK

LOKALAREN ZKA.	KOKAPENA	AZALERA ERABILGARRIA	ERABILERA
2	Nafarroa et., 4	92,50 m ²	Jarduera ekonomikoak
4	Nafarroa et., 6	94,85 m ²	Jarduera ekonomikoak
5	Nafarroa et., 6	143,00 m ²	Bar-Restaurante
8	Txaeta kalea, 1	81,62 m ²	Jarduera ekonomikoak
9	Txaeta kalea, 1	67,10 m ²	Jarduera ekonomikoak
10	Txaeta kalea, 1	213,96 m ²	Jarduera ekonomikoak

UARKAPEN KOKATUTAKO LOKALAK

LOKALAREN ZKA.	KOKAPENA	AZALERA ERABILGARRIA	ERABILERA
4	Otalora lizent, 24 (A1) -2S	46,50 m ²	Sotoan biltegia
7	Otalora, 12 (A7) -2S	65,03 m ²	Sotoan biltegia
12	Otalora 24 (A1) . 1S	46,50 m ²	Sotoan biltegia
23	Uarkape, 14 (B3) PB	156,51 m ²	Jarduera ekonomikoak
24	Uarkape, 14 (B3) PB	173,27 m ²	Jarduera ekonomikoak / 1 edo 2 etxebizitzetarako aukera
25	Uarkape, 12 (B4) PB	141,91 m ²	Jarduera ekonomikoak
28	Uarkape, 10 (B5) PB	32,67 m ²	Jarduera ekonomikoak



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

29	Uarkape, 12 (B4) PB	16,51 m ²	Trastelekua/etxebizitzaren osagarri erabilera
32	Uarkape 10 (B5) 2SS	36,38 m ²	Trastelekua/etxebizitzaren osagarri erabilera
36	Uarkape, 4 (B8) PB (de la trasera)	37,99 m ²	Jarduera ekonomikoak/ etxebizitzaren osagarri erabilera

Gutxieneko lizitazio motak jarraian azaltzen diren kopuruetan finkatzen dira, gehiago eskainiz hobetu ahal izango direnak:

LOKALA	LIZITAZIO MOTA
Zerrajera 2 zka.	101.750 €
Zerrajera 4 zka.	104.335 €
Zerrajera 5 zka.	171.600 €
Zerrajera 8 zka.	81.620 €
Zerrajera 9 zka.	67.100 €
Zerrajera 10 zka.	117.678 €
Uarkape 4 zka.	13.950 €
Uarkape 7 zka.	9.754 €
Uarkape 12 zka.	13.950 €
Uarkape 23 zka.	86.080 €
Uarkape 24 zka.	173.270 €
Uarkape 25 zka.	56.764 €
Uarkape 28 zka.	24.502 €
Uarkape 29 zka.	9.906 €
Uarkape 32 zka.	16.371 €
Uarkape 36 zka.	18.995 €

Lizitazio prezio horietan ez dago aurreikusita transmisioarengatik ondorioztatuko den zergari buruzko kopurua.

Lokalak eskaintza hoberenak aurkezten dituzten lizitatzailerei adjudikatuko zaizkie, Nafarroa etorbidea 6ko 4. lokalaren kasuan izan ezik, horren adjudikazio berezitasuna dela medio, Pleguaren 3. atalean jasota dagoena.



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

Aurkeztu den orria aztertu ondoren, hauxe proposatu dio Udalbatzarrari Hirigintza batzordeak:

I.- Ontzat ematea Nafarroa etorbidea 4-6 zenbakietan eta Txaeta kalea 1 zenbakian kokaturiko udalaren jabetzakoak diren 6 merkataritza lokal eta Uarkape kalea kokatzen diren beste 10 lokal batzuk enkante bidez inorentzea arautuko duen Klausula Administratibo Partikularren Orria. (Ikus II. eranskina).

II.- Enkante horretarako deialdia egitea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion lizitazio iragarkia argitaratuz.”

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Interbentziorik?. Bozketara pasatuko gara.

Bozketaren emaitza: **Diktamena AHO BATEZ ONARTUA izan da.**

Bertaratutakoak	18	
Aldeko botuak:	18	BILDU (9), EAJ-PNV (4), PSE-EE (4) eta ARALAR (1)
Aurkako botuak:	0	
Abstentzioak	0	

7.- LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA, ARRASATEKO UDALA ETA BIDEGIREN ARTEKOA, BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN DATUAK EGIAZTATZEARI BURUZKOA (2014PBAJ0001).

Udal Plenoak, aho batez, Pertsonal Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“BIDEGI Foru Sozietatea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako departamentura atxikia, AP-8 eta AP-1 autobideetako Gipuzkoako zatiak kudeatu eta ustiatzen dituen da eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean GFA) eta BIDEGIK izenpeturiko hitzarmenaren arabera, berau da baita aipaturiko bide azpiegituretako kanona administratzen duena.

Bestalde, 2010eko ekainaren 15eko 4/2010 Foru Dekretu Araua (ekainaren 16ko GAO, 112 zk.), 2010eko uztailaren 1etik aurrera AP-1 eta AP-8 autobideetako Gipuzkoako bidezatia erabiltzeko kanonaren zenbatekoak ezartzen dituen da, eskumena ematen diona Departamentuari eta bide batez BIDEGIri, AP-8 eta AP-1 autobideetako kanonaren gainean deskontuak egiteko.



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

Agindutako funtzio hauek garatzeko BIDEGI behartuta dago, deskontuaren eskatzailea Gipuzkoako Udalerri batean erroldatua dagoela egiaztatzeraz.

Eta aipatu deskontuaren kudeaketa egokiagoa egiteko, deskontudun eskatzaileen bizilekuari dagokion informazioa modu telematikoan egiaztatzeko, Arrasateko Udalaren ardurapekoa den Biztanleen Erroldatik datu horiek egiaztatzeko Udalarekin Lankidetzaz Hitzarmena sinatzea proposatu du.

Biztanleen Udal Errolde udalerriko biztanleak jasotzen dituen administrazio erregistroa da. Horrez gain, Udal Errolde toki erakunde guztiek duten datu pertsonalen fitxategi bat ere bada, bere helburuak hauek izanik:

- Udalerriko biztanleria zehaztea
- Udalerrian bizilekua izatearen eta bertan ohiko egoitza izatearen froga izatea
- Estatistikak egitea familien osakerari, ezaugarri ekonomikoari, hezkuntza mailari, ugalkortasunari eta heriotzei buruz.

Udal erroldako datuek, izaera pertsonala dutenak izanik, babestu egin behar dira, eta hori arautua dago 15/1999 Lege Organikoan, Datu Pertsonalak Babestekoan, alegia. Aipatu Lege Organikoaren arabera, udal erroldako datuak beste administrazio publikoari lagatzeko interesdunaren adostasunik gabe, datu horiek nahitaezkoak izan behar direla xedatzen da administrazio horiek euren eskumenez baliatu ahal izateko.

BIDEGIk proposatzen duena da deskontua jaso nahi duten erabiltzaileen baimena lortzea aurrez, eta lortutako baimen hori dagokion espedientean jasota geratuko da. Beraz, ulertu daiteke, datu pertsonalak babesteko arautegiaren ikuspuntutik, proposatutako hitzarmenak betetzen dituela legezko bermeak, erabiltzaileen baimena kasu guztietan jasota geldituko delako.

Kontutan izanik Udal honen helburuen artean erakundeen arteko lankidetzaz harremanak areagotzea eta modernizazioa, arrazionalizazioa eta hobekuntza bultzatzea badagoela ere, baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra lortzeko eta erabiltzaile eta herritarrei zerbitzu hobea eskaini ahal izateko, besteak beste, administrazio lanak sinplifikatuz edo tramite batzuk errazago bihurtuz, betiere pertsonen intimitate eskubidea zaintzeko eta beren datu pertsonalak babesteko beharrezko bermeak finkatuz.

Adierazitako guztia kontutan izanik, Pertsonal batzordeak, Udal Plenoari proposatzen dio ondorengo erabakia har dezala:

LEHENENGO.- Baimena ematea Lankidetzaz Hitzarmena sinatzeko “BIDEGI GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA – AGENCIA GUIPUZCOANA DE INFRAESTRUCTURAS, S.A.”rekin, deskontudun eskatzaileen bizilekuari dagokion informazioa modu telematikoan egiaztatzeari buruzkoa.

BIGARREN.- Alkateari gaitasuna ematea Lankidetzaz Hitzarmena sinatzeko.”



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Interbentziorik?. Bozketara pasatuko gara.

Bozketaren emaitza: **Diktamena AHO BATEZ ONARTUA izan da.**

Bertaratutakoak	18	
Aldeko botuak:	18	BILDU (9), EAJ-PNV (4), PSE-EE (4) eta ARALAR (1)
Aurkako botuak:	0	
Abstentzioak	0	

8.- PERTSONAL BATZORDE INFORMATZAILEAN ALDAKETA, UDALTZAINGOAREKIN LOTUTAKO GAIEI SARRERA EMATEKO (2014PUDL0001)

Udal Plenoak, aho batez, Pertsonal Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Udal Plenoak, 2011ko uztailaren 7ko bilkuran, erabaki zuen Alkatetzak aurkeztutako proposamena, batzorde informatzaile iraunkorrak eratu eta osatzeari buruzkoa, onartzea.

Ikusita orduan sortutako 12 batzordeen artean ez dagoela, baina, propio izendatuta, udaltzaingoari zuzendutako batzorderik; eta ondorioz, horren gabezia sumatzen dela, sarri arlo horretako hainbat gai, batez ere zerbitzuaren antolaketaz eta funtzionamenduaz zerikusia dutenak, informatzeko eta bideratzeko orduan.

Kontutan hartuta, azkenik, kezka horren inguruan Pertsonal batzordeak proposamena luzatu duela, batzorde berori izan dadin aurrerantzean – beste batzordeei espezifikoki legezkieken kaltetan gabe – Udaltzaingoaren gaiak jorratuko dituen.

Kontutan hartuz proposamen horrek dakarrela gaur egungo Pertsonal batzordearen eremuan sartzea gaurdaino modu erabat egokian jorratu ez diren gaiak, komenigarria ikusi da eratua dagoen batzorde informatzailearen izenak egoera berria isladatzea, eta hortaz, organo horren izenari gehituko zaio bere ardurapekoa izango den gai berria ere, “*herritarren segurtasuna*” edo “*udaltzaingoa*” gehituz oraingo izenari.

Hori guztia ikusita, Pertsonal batzordeak Udal Plenoari proposatzen dio erabaki hau har dezala:

LEHENENGO.- Udal Plenoak 2011ko uztailaren 7an hartutako erabakian, batzorde informatzaile iraunkorrak eratu eta osatzeari buruzkoan, aldaketa ezartzea, jarraian adierazten den eran:

Orain arte hau esaten zuen tokian:

LEHENENGO.- Jarraian zehazten diren Batzorde Informatzaile Iraunkorrak sortzea:



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

PERTSONAL Batzorde Informatzailea

Aurrerantzean hauxe esango du:

LEHENENGO.- Jarraian zehazten diren Batzorde Informatzaile Iraunkorrak sortzea:

PERTSONAL ETA UDALTZAINGO Batzorde Informatzailea

BIGARREN.- Erabaki honen berri Pertsonal eta Udaltzaingo batzorde informatzaileko kide guztiei, eta Udaltzain buruari jakinaraztea.”

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Interbentziorik?. Bozketara pasatuko gara.

Bozketaren emaitza: **Diktamena AHO BATEZ ONARTUA izan da.**

Bertaratutakoak	18	
Aldeko botuak:	18	BILDU (9), EAJ-PNV (4), PSE-EE (4) eta ARALAR (1)
Aurkako botuak:	0	
Abstentzioak	0	

9.- ARRASATEKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEKO PROPOSAMENA (2014RBAR0012).

Udal Plenoak, aho batez, Ogasun batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koa, bere 8.1 artikuluan ezartzen du diru-laguntzak ezartzea proposatzen duten Herri Administrazioetako organoek edo beste edozein erakundek, aldez aurretik, hura aplikatzean lortu nahi dituzten helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko behar izango duten epea, aurreikusitako kostuak eta horien finantzabideak zehaztu beharko dituztela Diru-laguntzen Plan Estrategiko batean.

Era berean, lege horren azken xedapenetako lehenengoak ezartzen du aipatu artikulua oinarritzeko dela eta Herri Administrazio guztiek aplikatu behar dutela.

Bestalde, legezko mandatua betetzeaz gain, beste zio eta arrazoi batzuk daude agiri hau idaztea aholkatzen dutenak; adibidez, eraginkortasun eta efizientzia mailak hobetzea dirulaguntzako gastu publikoan, sail eta batzorde desberdinen arteko deskoordinazioak saihestea, udalaren laguntza-



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

jarduerari buruzko ikuspegi globala edukitzea, herritarrek errazago izatea diru-laguntzak lortzeko bidea, berme handiagoa lortzen baita gardentasunean, irizpide berdintasunean eta lehia librean, bai eta horri buruz udal kudeaketaren arrazoizko erabilera bat lortzea ere, dagokion plangintza globalaz, prozeduren sistematizazioaz eta emaitzak ebaluatuz.

Horregatik, datorren urtean onartu daitezkeen aldaketa edo egokipenen kaltetan gabe, 2014-2015 epealdirako (oraingo legealdia bukatu arteko epea) Diru-laguntzen Plan Estrategikoa prestatzea erabaki du Arrasateko Udalak, bai legeak agindutakoa betetzeko, eta baita honen helburuak lortze aldera.

Aurkeztu den Plan Estrategikoan Arrasateko Udalak eta bere Erakunde Autonomoak ematen dituzten diru-laguntza programa eta lerro guztiak jasotzen dira, bakoitzean ondorengo aspektuak zehaztuz:

- Lortu nahi diren helburuak.
- Diru-laguntzaren modalitatea.
- Nori dagoen zuzendua programa edo lerroa
- Zenbatekoa
- Aurrekontu aplikazio

Plan Estrategikoa aztertu eta gero, Ogasun Batzordeak, Bildu eta Aralar taldeetako ordezkarien aldeko botoekin eta EAJ/PNV taldeko ordezkariaren abstentzioarekin, hauxe proposatu dio Udal Plenoari:

LEHENENGO.- Hasiara batean onartzea 2014/2015 epealdirako Arrasateko Udalaren Plan Estrategikoa (Ikus III. eranskina).

BIGARREN.- Jende aurrean jartzea Plan estrategikoa onartzeko akordioa, 30 egunean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, interesdunek bidezkoztat jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ditzaten, eta behin betiko onartutzat joko dugu, epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikulua xedatutakoarekin bat.”

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Interbentziorik?. Bozketara pasatuko gara.

ARITZ ARRIETA (PSE-EE): Arratsaldeon. Nosotros no nos pronunciamos en la comisión, dijimos que nos pronunciaríamos en Pleno. Estamos de acuerdo en el Plan Estratégico porque entendemos que se fiscaliza muchísimo mejor la forma de dar las subvenciones. Entonces como no nos pronunciamos en comisión. Deciros que votamos a favor del Plan Estratégico.



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Bozketara pasatuko gara.

Bozketaren emaitza: **Diktamena AHO BATEZ ONARTUA izan da.**

Bertaratutakoak	18	
Aldeko botuak:	18	BILDU (9), EAJ-PNV (4), PSE-EE (4) eta ARALAR (1)
Aurkako botuak:	0	
Abstentzioak	0	

10.- LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA, INFORMAZIOA ELKARRI LAGATZEARI BURUZKOA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUAREN ETA ARRASATEKO UDALAREN ARTEKOA (2014RBAR0014)

Udal Plenoak, aho batez, Ogasun batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Ogasun eta Finantza Departamentuarentzat eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Udalentzat beharrezkoa da datu jakin batzuen lagapena, beraiei esleitutako zereginak garatzeko eta eskumenak betetzeko.

Zentzu honetan, ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, jasotzen duenez, herritarrek ez dute herri-administrazioak dagoeneko bere esku duen datu eta agiririk aurkeztu beharrik. Herri-administrazioak bitarteko elektronikoz balia daitezke informazio hori eskuratzeko. Hala ere, datu pertsonalak direnean interesdunak baimena eman beharko du Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak edo lege mailako arau batek ezarritako eran, salbu eta eskatutako datu edo agiri horiei aplikagarri zaien legeriak murrizpenak ezartzen dituenean.

Printzipio horrekin bat, administrazio bakoitzak interesdunei buruz euskarri elektronikoan dituen datuetara iristea erraztu behar die gainerako administrazioei, eta horretarako datu horiek segurtasunez, osorik eta baliagarritasunez iristeko behar diren baldintza, protokolo eta irizpide funtzional edo teknikoak zehaztu behar ditu, aipatutako Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, eta segurtasun eskema nazionalen (ENS) eta sistema elkarreragingarritasunaren eskeman (ENI) ezarritako beharkizunak beteaz.

Bestalde, Zergen Foru Arau Orokorreko 91. artikulua honakoak ezartzen ditu, zerga administrazioak datuak eskuratzeari buruz ari dela:

«1. Agintariak, edozein izaera dutela ere, lurralde historikoetako titularrak, autonomia erkidegoetakoak, estatukoak eta toki entitateetakoak; organismo autonomoak eta entitate publiko empresarialak; ganbera eta korporazioak, profesionalen elkarte eta elkarteak; gizarte aurreikuspeneko mutualitateak; gainerako entitate publikoak, Gizarte Segurantzaren gestorak barne, eta, oro bar, funtzio publikoan dihardutenak,



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

behartuta daude Zerga Administrazioak xedapen orokorren bidez edo errekerimendu zehatzen bitartez eskatzen dizkien datu, txosten eta aurrekariak ematera, zerga alorrean garrantzitsuak direnean. Orobat, behartuta daude Zerga Administrazioari eta bere agenteei euskarria, laguntza, sorospena eta babeska eskaintzera beren eginkizunak bete ditzaten.

.....
5. Aurreko artikuluan, artikulua honetako aurreko apartatuetan edo lege mailako beste arau batean xedatutakoaren arabera Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaizkion datu pertsonak emateko, ez da eragindako pertsonaren baimenik behar. Esparru horri dagokionez, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoak, 21. artikulua 1 apartatua xedatutakoa ez da aplikatuko».

Era berean, Zergen Foru Arau Orokorreko 92. artikulua honako hau ezartzen du, zerga datuen lagapenari buruz:

«1. Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzeari eskuratzen dituen datu, txosten edo aurrekariak izatera erresebatua dute, eta berak kudeatu behar dituen zergak edo baliabideak modu eraginkorrean aplikatzeko eta zigorrek ezartzeko baino ezin dira erabili. Hortaz, ezin izango zaizkio beste inori utzi edo jakinarazi, non eta horren xedea honako hau ez den:

.....
b) Beste zerga administrazio batzuei laguntzea beren eskumenen esparruan sartzen diren zerga obligazioak betetzeko.

.....
d) Beste edozein herri administrazioekin elkarlanean aritzea, fondo publikoetatik edo Europar Batasunetik ematen diren diru laguntzak lortu edo jasotzean egiten den delitu fiskalaren eta iruzurraren aurka borrokatzeko.

.....
j) Zergaz kanpoko baliabide publikoak biltzea arduratzen diren zuzenbide publikoko organo eta entitateei laguntzea ordaintzera behartutakoak behar bezala identifikatzeko.

.....
Y porque le criticamos a ustedes? Porque están firmando un acuerdo con el gobierno de este Ayuntamiento en contra de lo quiere la ciudadanía de Arrasate, que es no implantar el puerta a puerta. Que quieren, que nos lo callemos también?. También quieren eso? Que estemos callados? No, porque lo vamos a callar, simplemente es eso. No es más. Y la ley municipal porque ustedes no quieren y efectivamente no se dignaron ni tan siquiera, esa etapa la he vivido yo, eh, no se dignaron ni tan siquiera a discutir la ley municipal cuando el Lehendakari Patxi López, uno de sus objetivos era la ley municipal, y no salió adelante por ustedes. Y no echen balones fuera.

ARITZ ARRIETA (PSE-EE): Y yo solo decirle que estamos orgullosos de ser Partido Socialista Obrero Español, y no creo que mi compañero tenga ningún problema en llamarse Francisco ni Paco pero me parece de mal gusto que utilice usted ese juego de palabras, en llamarle Francisco y Paco. Quiero decir que nos merecemos el mismo respeto o más, en fin, casi casi que usted. Y desde luego querer desacreditarnos con lo que nos llamamos, pues efectivamente, como ha dicho mi compañero tantas tonterías en tan poco tiempo, y en fin querer mezclar lo segundo con lo otro, y en fin ustedes sabrán lo que están haciendo y desde luego no nos va a decir usted a nosotros como tenemos que hacer nuestro trabajo de oposición.

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Bueno, bukatzen mesedez, bozkatzera pasatu behar gara, bestela hamarrak arte egon geinke horrela

IBON ARRUPE (EAJ-PNV): Ez gara askotan egoten, ez?

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Eztabaida lekuz kanpo atera barik, gaia da bat eta hondakinak ya eztabaidatu ditugula.



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

IBON ARRUPE (EAJ-PNV): Hor arrazoa daukatzu. Ez da niri intentzioa errespetua faltatia izan orduan Paco barkamena eskatzen dotzut holan sentidu izan baduzu errespetura faltau izan dotzutela, eta besterik ez.

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Bozketara pasatuko gara orduan.

Bozketaren emaitza: **Diktamena AHO BATEZ ONARTUA izan da.**

Bertaratutakoak	17
Aldeko botuak:	17 BILDU (9), EAJ-PNV (4) eta PSE-EE (4)
Aurkako botuak:	0
Abstentzioak	0

19.- ALKATEAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI IZATEA, AZKENEKO BILKRATIK PLENO HONETAKO DEIALDI EGUNERA ARTEKOAK

Udal Plenoak Alkateak emandako Dekretuen berri izan du, N13/2805tik N14/539 zenbakira bitartekoak (ikus zerrenda IX. eranskinean)

20.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez dira izan

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko 20:05etan, amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jasoz.

Arrasaten, 2014ko martxoaren 19an

IDAZKARIA

LEHENDAKARIA

Iñigo Garitano Larrañaga

Inazio Azkarragaurizar Larrea



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

I. ERANSKINA

ZIRKULAZIOAREN ETA HERRI BARRUKO BIDEEN ERABILEREN GAINEKO UDAL ORDENANTZA.

-ATARIKO TITULUA XEDEA, ESKUMENAK ETA APLIKAZIO EREMUA

Xedea

1. Artikulua.- Ordenantza hau egiten du Udalak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak, 25. artikuluan b) eta ll) ataletan, trafikoari eta zirkulazioari buruz udalerriei emandako eskumenaren arabera, bai eta Arrasateko udalerriko trafikoaren eta bideen erabileren oraingo egoerari egokitzeko beharra duelako, Trafikoari, Ibilgailu motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Oinarrien 18/1989 Legearen aplikazioaren ondorioz, martxoaren 2ko 339/1990 LEDak onartua, eta azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuak garatu duena, horren bidez onartzen baitu Zirkulazioaren Erregelamendu Orokorra eta kontuan izanik uztailaren 19ko 17/2005 Legea eta artikuluen testu hori berritzen duen azaroaren 23ko 18/2009 Legea.

Aplikazio eremua.

2. Artikulua.- Ordenantza honen aginduak udalerriri osoan aplikatuko dira, herri barruko bideetan nahiz herriz kanpokoetan, eskumena Udalarri lagatakoetan, eta behartzen ditu, zirkulatzeko egokiak diren herri barruko bide eta lursail publikoetako titularrak eta erabiltzaileak, halako gaitasuna izan gabe denek erabiltzekoak diren bide eta lursail etakoak eta, beste araurik ezean, zehaztugabeko erabiltzaile kopuru batek erabiltzeko bide eta lursail pribatuetako titularrak.

3. Artikulua.- Herri barruko bidetzat jotzen dugu eraikinak hartzen dituen gunea eta horien sartu-irten bideetan jarrita, hurrenez hurren, herrira sartzeko seinaleak (S-500) eta herriatik irteteko seinaleak (S-510).

10. Artikulua.- Kasu guztietan, udal eskumeneko bideak dira ordenantza honetako I. Eranskinak jasotzen dituenak.

Arau subsidiarioak.

5. Artikulua.- Ordenantzak berariaz erregulatzen ez dituen gaietan, edo udal agintaritzak erregulatzen dituen gaietan, horren arabera, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua aplikatuko da, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zituztelarik gerora egindako aldaketak eta garatzeko erregelamenduak.

Udal eskumenak.

6. Artikulua.- Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen eta garatzeko arauen testu artikulua 339/1990 LEDren 7. artikuluan udalen esku utzitako eskumenak erabiliko ditu Udalak.

7. Artikulua.- Bere titularitateko herri barruko bideetan trafikoa antolatu eta kontrolatzea, bai eta horiek zaintzea udaltzainen bidez, bide horietan gertatzen diren arau-hausteen salaketa eta horien santzioak, berariaz beste administrazio bati esleitzen ez zaizkionean.

8. Artikulua.- Zirkulazioaren udal ordenantzaren bidez, herri barruko bideen erabilerak erregulatzea, eta bateragarri egitea aparkalekuak zuzen banatzea erabiltzaile guztien artean, ibilgailuen trafikoaren beharrezko arintasunarekin eta kaleetako oinezkoen erabilerarekin, bai eta aparkatze mugatuko neurriak ezartzea ere, aparkalekuak aldatzen joan daitezkeen bermatzeko, eta arreta berezia jarriko zaie mugitzeko mugak dituzten eta ibilgailua erabiltzen dituzten ezinduen beharrei, hori guztia haien gizarteratzearen alde egiteko.

9. Artikulua.- Ibilgailuak ibilgetzea herri barruko bideetan, denboraz mugatutako guneetan (TAO) aparkatzea gaitzen duen agiriak ez dutenean edo emandako baimena baino luzarago dagoenean, gidaria nor den jakitea lortu arte.

10. Artikulua.- Ibilgailuak eramatea herri barruko bideetatik eta gero horiek gordetzea, zirkulazioa oztopatu edo zailtzen dituztenean edo arriskua direnean zirkulatzeko, edo ez daudenean aparkatuta behar bezala aparkatze mugatuko guneetan, artikulua honetan ibilgailuak ibilgetzeko aurrekusten diren baldintzetan.

11. Artikulua.- Kirol probak baimentzea, hirigunean baino ez direnean, zeharbideak izan ezik.



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

12. Artikulua.- Trafikoari, ibilgailu motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatua onartzen duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuko o) atalak aipatzen dituen probak egitea artículo 5.

13. Artikulua.- Herri barruko bideak ixtea, hala behar denean.

II. TITULUA BIDE SEGURTASUNAREN ZAINZA ETA KONTROLA

I. KAPITULUA.- TRAFIKOAREN ZAINZA ETA KONTROLA.

Trafikoko agenteei buruz.

14. Artikulua.- Trafikoko agenteei dagokie, bide segurtasunaren zirkulazioari, diziplinari eta zaintzari dagokienez, eta mugikortasuna sustatzeari dagokionez, besteak beste, udal titularitateko bideetan trafikoa antolatu, seinaleztatu eta zuzentzeko funtzioak. Halaber, trafikoko agenteei dagokie trafikoa erregulatzea.

Halaber, trafikoko agenteei dagokie atestatuak izapidetzea, herri barruan zirkulazioko istripuak direla-eta, eta laguntza ematea, istripuak gertatzen direnean.

15. Artikulua.- Aparkatze arautuko guneetako zaintzaz arduratzen diren pertsonak salaketak egin ditzakete bai aparkatzearen arau-hauste orokorreari buruz bai gune horiek erregulatzen dituzten arau espezifikoari buruz.

Trafikoko agente ez diren pertsonen trafikoa erregularizatzea eta seinaleztatzea.

16. Artikulua.- Trafikoko agenterik ez dagoenean, agintaritzako beste agente batzuk erregulatu ahal izango dute, betiere urgentziako edo larrialdiko gorabehera bat gertatzen denean, berehala jarduteko eskatzen duena; horiek zirkulazioa erregulatu ahal izango dute.

17. Artikulua.- Ordenantza hauetan xede diren bideetan egiten diren obren trafikoen seinaleztatzearen eta erregularizazioaren ardura egokituko zaie obrak egiten dituzten erakundeei edo horien adjudikaziodunei, Udal Agintaritzak zehaztutakoaren arabera. Bidearen erabiltzaileak behartuta daude obra horietan trafikoa erregulatzeko dauden langileei esanak jarraitzen.

18. Artikulua.- Halaber, zirkulazioa erregulatu ahal izango dute garraio bereziko erregimenean dauden ibilgailuekin laguntzaile doazen langileek, paleta bati erantsitako R-200 eta R-400 seinale bertikalak erabiliz, eta baliabide horrekin, eskola patruilek bidearen erabiltzaileak gonbidatu ahal izango dituzte, haien ibilia gelditu dezaten.

19. Artikulua.- Udal organo eskudunak baimena ematen duenean kirol jarduerak edo ekitaldiak egiteko, bideetan zirkulazioa mugatzea behar dutenak, emandako baimenak gaitu egin ditzake babes zibileko langileak edo antolakuntzako langileak, ibilgailuak edo oinezkoak gune edo ibilbide horietara sartu ez daitezen.

II. KAPITULUA APARKATZEKO EREMUAK ANTOLATzea.

Zerbitzu publikoetarako diren ibilgailuentzat erreserbatutako bideak eta erreiak

20. Artikulua.- Zerbitzu publikoetarako diren ibilgailuentzat erreserbatutako bideak edo erreiak dira autobusek eta taxiak zirkulatzeko egokitutakoak, urgentziako zerbitzuentzat eta udal zerbitzuentzat direnez gain. Ordenantza honetako II. Eranskinean bide edo erre horien kokalekua dator jasota.

Aparkatzearen eta zirkulatzearen antolamendua baimentzeari buruz.

21. Artikulua.- Mugikortasunaren eremuan eskuduntza duen udal organoari baino ez zaio egokituko, erabilera publikoko bideetan aparkatzearen eta zirkulatzearen antolamendua baimentzea, nahiz eta jabetza pribatukoak izan.

22. Artikulua.- Horrekin bat, debekatuta dago, eta arau-hauste larritzat joko dugu, partikularrek antolatzea aparkatzearena, espazioa erreserbatzeari dagokionez, eta ezingo dute eten zirkulazioa ez eta seinalerik edo adierazlerik jarri aipatu baimenik gabe eta aldatu ere ezingo dute.



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

III. TITULUA BIZIKLETEN ZIRKULAZIOA ETA APARKALEKUA

I. KAPITULUA.- BIZIKLETEN ZIRKULAZIOA

Arau orokorrak.

23. Artikulua.- Arau orokor moduan bizikletek nahitaez zirkulatuko dute galtzadatik, eta paraleloan zirkulatu daiteke.

24. Artikulua.- Bizikletentzat erreserbatutako erreirik dagoenean, berariaz seinaleztatuko dena bidegorri moduan, bizikletek horietan zirkulatuko dute, eta errespetatuko dituzte seinaleak, zirkulazioaren antolamendua eta gainontzeko ibilgailuentzat aurreikusita dauden igarotzeko lehentasun arauak.

25. Artikulua.- Bizikletak ere ibili ahal izango dira, oinezko asko dagoenean izan ezik, oinez egin beharko dutelarik, eta beti oinezkoen lehentasuna errespetaturik, hauetatik:

a. Parke publikoetatik, gehienez ere 10 km /orduko abiduran.

Espaloietatik eta oinezkoen beste eremu batzuetatik, 5 metrotik gorako zabalera bat eta 3 metroko espazio libre dutenean eta gehienez ere 10 km/orduko abiduran.

26. Artikulua.- Artikulu honetan adierazitako ondorioetarako, jendetza dagoela ulertuko dugu bizikletaren eta dabilzan oinezkoen artean metro bateko distantzia gordetzea ezinezkoa denean, edo artez 5 metroan etenik gabe eta lehentasunez bidearen erditik zirkulatzeko ezinezkoa denean.

27. Artikulua.- Galtzadatik zirkulatu duten ziklistek lehentasunez espaloitik hurren dauden erreietatik zirkulatuko dute, eta indarrean dauden igarotze arauen arabera ibilgailuek dituzten pasatzeko lehentasuna izango dute. Ezkerretara baimendutako biratzea eginez gero, ziklistek egoki diren biratze erriak erabili ahal izango dituzte.

28. Artikulua.- Zerbitzu publikoetarako diren ibilgailuentzat erreserbatutako bideetatik eta erreietatik zirkulatu ahal izango dute zikloek eta bizikletek.

29. Artikulua.- Bizikletek, baimendutako guneetatik zirkulatu dutenean, 3 metro baino zabalera txikiagoa dutenak, lerroan egingo dute, paraleloan edo taldean zirkulatu ez dezaten.

Beste arau batzuk bizikleten zirkulazioan.

30. Artikulua.- Arau orokor moduan debekatuta egongo da:

a. Gurpil bakar batean doala ibilgailuaz zirkulatzeko.

b. Beste pertsona bat eramatea, heldu batek aulkixuan eramandako 7 urte baino gutxiago duten umeak izan ezik.

c. Esku-lekua askatzea, maniobra seinale bat egiteko beharra dagoenean izan ezik.

d. Beste ibilgailu batzuei heltzea, haiei helduta eramateko.

e. Zigzaga ibiltzea ibilgailuen edo oinezkoen artean.

f. Soinuak hartu edo ematen dituen aparatuetara konektatutako aurikularrak erabiliz zirkulatzeko.

g. Bizikleta erabiltzea zailtzen duten edo ikusmena gutxitzen duten objektuez kargatzea bizikleta.

1. Gauzez zirkulatu duten bizikletek argiak eta elementu distiratzailak eraman behar dituzte (aurrealdean zuriak eta atzealdean gorriak), behar bezala homologatuak, oinezkoek eta gidariek egoki eta zuzen ikusi ahal izan ditzaten.

2. Bizikletek atoa eraman ahal izango dute, homologatua, animaliak edo merkantziak garraiatzeko, egunez zirkulatuz eta ikusmena gutxitu gabe, eta abiadura moderatuan, gidaria adin nagusikoa denean eta haren ardurapean.

3. Bizikletek eraman ahal izango dituzte, gidaria adin nagusikoa denean eta haren ardurapean, zazpi urte arteko adin txikikoak jarleku gehigarrietan edo atoietan, bizikletari akoplaturik, behar bezala ziurtaturik eta homologaturik, halako gailuek ezartzen dituzten pisu mugekin. adin txikikoek nahitaez eraman beharko dute kasko homologatua.

Bizikletak aparkatzea.

31. Artikulua.- Bizikletek nagusiki aparkatu behar dute hartarako egokitutako lekuetan, eta kasu guztietan 3 metroko leku libre bat utziko dute oinezkoentzat.



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

32. Artikulua.- Berariaz dago debekaturik bizikletak aparkatzea hauetan:

- a. Zamalan erreserba dagoen eremuetan galtzadan jarduera horretako orduetan.
- b. Ezintasuna duten pertsonentzako aparkatzeko guneeetan.
- c. Urgentzia eta segurtasun zerbitzu, zentro publiko edo instalazio publikoentzat berariaz erreserbatutako aparkatzeko guneeetan.
- d. Jendetzako establezimenduetarako diren lokaletako larrialdietako irteeretan, jarduera orduetan.
- e. Garraio publikoaren geralekuetan.
- f. Oinezkoentzako pasabideetan.
- g. Ibilgailu motordunentzako aparkatzeko guneeetan, seinale bertikalez eta horizontalez behar bezala seinalezaturik.

12 urtefik beherakoak.

33. Artikulua.- 12 urtefik beherakoek, haien zaintza duten pertsonen ardurapean, espaloietatik zirkulatu ahal izango dute bizikletan, abiadura egokituz oinezkoen abiadurari.

34. Artikulua.- Bizikletan zirkulatzen duten 12 urtefik beherakoen zaintza duten helduei gomendatzen diegu adingabe horiek kaskoa erabili dezaten sustatzea.

II. KAPITULUA.- BESTE IBILGAILU MOTA BATZU ETA BESTE MAKINA MEKANIKO BATZUK

Mugikortasun pertsonaleko aparatuen eta makina mekanikoen zirkulazioari buruz

35. Artikulua.- Arau orokor moduan mugikortasun pertsonaleko aparatuek eta motorrik gabeko makina mekanikoez (patinak, patineteak, monopatinak eta antzekoak, besteak beste) ezingo dute zirkulatu galtzadan. Espaloietan eta oinezkoen lehentasun eremuetan bakarrik ibiliko dira, eta ezingo dira sartu zirkulazio bideetara. Zirkulatzean oinezkoen martxara egokitu behar dira, eta uneoro ezingo dute enbarazurik egin edo arriskurik sortu eta kasu batean ere ez dute lehentasunik izango oinezkoen buruz.

36. Artikulua.- Espaloietatik eta oinezkoen lehentasun eremuetatik bakarrik ibili ahal izango dira, oinezko asko ez dagoenean eta beti oinezkoen lehentasuna errespetaturik. artikulu honetan adierazitako ondorioetarako, jendetza dagoela ulertuko dugu mugikortasun pertsonaleko aparatuen eta motor gabeko makina mekanikoen eta dabiltzan oinezkoen artean metro bateko distantzia gordetzea ezinezkoa denean, edo artez 5 metroan etenik gabe zirkulatzea ezinezkoa denean.

37. Artikulua.- Mugikortasun pertsonaleko aparatua eta makina mekaniko horiekin ezin dugu zirkulatu, zeharkatu edo salto egin hiri altzarien gainean, hala nola, jarleku, eskudel, petril, eskailera edo antzekoak.

Patin elektrikoek eta antzekoen zirkulazioa.

38. Artikulua.- Patin elektrikoek eta antzekoek, indarrean dagoen araudiaren arabera behar bezala homologaturik eta baimendurik, aurreko artikuluan jasota dauden arauak beteko dituzte, salbuespen hauekin:

- a. Arau orokor moduan patin elektrikoek eta antzekoek ezingo dute zirkulatu galtzadan.
- b. Patin elektriko eta antzekoentzat erreserbatutako tokietan baino ezingo dute aparkatu, egonez gero halakorik.

IV. TITULUA ABIADURA MUGAK.

KAPITULU BAKARRA. ABIADURA MUGAK HERRIAN.

Abiadurak

39. Artikulua.- Udal titularitateko bide publikoetan zirkulatzeko gehieneko abiadura izango da 30 km orduko, Ordenantza honetan edo aplikagarria den araudian jasota datozen kasuetan izan ezik.

Abiadura mugak

40. Artikulua.- Abiadura muga hori udal organo eskudunak gutxitu ahal izango du, eta horretarako dagozkion seinaleak erabiliko ditu. Baldintza bertsuetan, handitu egin ahal izango dira mugak, dagozkion seinaleak erabiliz herri barruko zeharkaldietan, baina kasu batean ere gainditu barik heriz kanpo bide horientzat ezarritako muga generikoak.



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

V. TITULUA
AZPIEGITURAK

KAPITULU BAKARRA.

41. Artikulua.- II. Eranskinean "OGunea" moduan definitu eta jasotako bideek eta kaleek murrizketa hauek izango dituzte:

- a. Oinezkoek, zikloek eta bizikletek bakarrik erabili ditzaketan bideak dira.
- b. Debeekatuta dago, udaltzainek edo udal organo eskudunak berariaz baimendu ezean, ibilgailu motordunak eta ziklomotoreak hor zirkulatzea, geratzea eta aparkatzea.

42. Artikulua.- II. Eranskinean "1 Gunea" moduan definitu eta jasotako bideek eta kaleek murrizketa hauek izango dituzte:

1. Debeekatuta dago ibilgailu motordunak eta ziklomotoreak zirkulatu, geratu eta aparkatzea II. Eranskinean jasotako orduetatik kanpo, baimen orokorra, zirkunstantziala edo urgentziakoa izan ezik.

a. II. eranskinean "1 Gunea" moduan jasotako bide eta kaleetako sarreran eta irteeran, Udal Agintaritzak elementu mugikorak erabili ahal izango ditu, eraginpeko eremuko barrualdean ibilgailuak sartu ez daitezen eta zirkulatu ez dezaten.

b. Udal organo eskudunak baimen orokorra eman ahal izango du, eskatzailearen zirkunstantzia partikularrei jaramon eginez, ibilgailu motordunek zirkulatu, geratu eta aparkatzeko eta zamalanak egiteko bakarrik eta baimen horretan ezarritako mugak errespetatuz, BAZen 48 ordu lehenago eskatu eta gero. BAZek udaltzainei bidalitako eskabide horiei erantzuna emango die Udalak (BAZearen), onartzeko edo, hala badagokio, ez onartzeko, eta azken horretan arazoitu egingo du.

c. Baimen orokorra eman zuen organoak balio gabetu ahal izango du baimen orokor hori.

d. Baimen egiaztagiria, ordenantza honetako III. eranskinean deskribatutakoa, ibilgailuko haizetakoan ondo ikusteko moduan jarriko du.

e. Udaltzaingoko arduradunek baimen zehatza eta urgentziakoa emango dute, 48 ordu baino txikiagoko eskabide epean, irizpide hauen arabera:

- o Urgentzia beharrak, II. Eranskinean jasota datozen bideetan helbideratutako herritarren gaixotasunengatik edo eragozpen fisikoengatik.

2. Erregelamendu honetako II. eranskinean jasotako ordutegien mugetan, ibilgailu motordunek eta ziklomotoerek zirkulatu, geratu edo aparkatu egin ahal izango dute, zamalan egiteko bakarrik.

3. Kasu guztietan, abiadura muga 20 km/orduan ezarrita dago eta ibilgailu motordunek eta ziklomotoerek oinezkoiei eta ziklo eta bizikleta gidariei pasatzen utziko diete.

4. Halaber, debeekatuta dago 3.500 kg baino gehiago BGM duten ibilgailuen zirkulazioa, eta salbuetsita daude Udaltzaingoarean berariazko baimena duten ibilgailuak.

5. "1 Gunea"n ezarritako zirkulazio eta geratze mugek ez diete eragingo ibilgailu hauei:

a.- Suteak itzaltzeko eta salbamendu zerbitzuaren ibilgailuei, segurtasun indar eta kidegoen ibilgailuei, ambulanziei eta zerbitzu publikoak ematea atxikita duten ibilgailu guztiei.

b.- Haien egitekoak betetzen dituztelako, ur zerbitzuaren ibilgailuei, argiteria publikoko ibilgailuei, gas, bide garbiketara, farmazia, hileta zerbitzuetako ibilgailuei eta hilkutxaren atzetik doazen senideen ibilgailuei.

43. Artikulua.- LEHENTASUNEZKO ARRETA BIDEAK edo zirkulazio handiko bideak.

II. Eranskinean "2 Gunea" moduan jasotako bideak eta kaleak LEHENTASUNEZKO ARRETA BIDEAK izango dira, lehentasunezko edo zirkulazio handiko jotzen ditugulako, Arrasateko ibilgailuen trafikoaren arteria nagusiak direlako, debeekatuta dago horietan geratu eta/edo aparkatzea bigarren ilaran; zigorren zenbatekoa handitu egiten da. Hona hemen bide horiek, baina murrizketa hauekin:

- a. Gipuzkoa etorbidea, Otalora Lizentziaduna kalea, Zarugalde kalea, Uribarri etorbidea, Arrasate pasealekua, Alfonso VIII, Araba etorbidea, Kontzezino kalea eta Nafarroa etorbidea.



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

- b. Bide horietan abiadura muga 40 km/orduan dago ezarrita. Zarugalde kalea 6 eta 30 zk.dunen arteko bidezatian izan ezik, hor gehienezko abiadura 30 km/h izango da.

Lehentasunezko arreta bideak seinale bertikal informatiboen bidez identifikatuko dira. Bide horietako seinale horizontalak jartzeko, galtzadaren bi aldeetan kolore gorriko luzetarako lerro jarraituak erabiliko dira.

VI. TITULUA
GERATU ETA APARKATZEA.

I. KAPITULUA.- MERKANTZIEN ZAMALANAK

Arau orokorrak

44. Artikulua.- Zamalanerako gunea da bide publikoan hala identifikaturik edo mugaturik eta seinalezaturik dagoen gunea; leku horretan ibilgailuak aparkatzeko baimena egongo da, zamalanak egiteko behar den denboran. Zamalanetan, uneoro langileren bat egongo da ibilgailuaren ondoan erraz aurkitzeko moduan eta adi udaltzainek zerbait eskatuz gero.

45. Artikulua.- Bide publikoan zamalanak egitea izango da merkantzian eramatea ondasun higiezin batetik edo merkataritza lokal batetik aparkatuta dagoen ibilgailu batera edo alderantziz, eta ibilgailuen artean, betiere ibilgailu horiek zamalanak egiteko baimena izanez gero.

46. Artikulua.- Hartarako erreserbatutako gunetan eta baimenaren orduetan egingo dira zamalanak, dagokion seinalean jasoko dena.

Zamalanak bidetik kanpo egin behar dira, merkataritza eta industria lokalen barrualdean nagusiki, baldintza egokiak edukiz gero. Salbuespenez, bidean egin behar direnean nahitaez, bideko gainerako erabiltzaileei arriskurik eta nahasmendu larririk sortu barik eta arau hauek kontuan harturik egingo dira zamalanak:

- a. Ordenantza honetan edo dagokion instrukzioan erregulatutako ordutegiak eta gunek errespetatuko dira, udal agintaritzak zehaztu dituenak.
- b. Zamalanak, ahal dela, galtzadako ertzetik gertuen dagoen aldetik edo zamalan unetik eta atzealdetik egingo dira, finketara eta merkataritzako lokaletara joateko bidea ez oztopatzeko.
- c. Behar diren bitartekoak erabiliko dira ahalik eta azkarren egiteko, eta behar ez den zaratarik eta trabarik ez egiteko, bereziki gaueko orduetan.
- d. Debebatuta dago merkantzia uztea zirkulazio gunean.
- e. Merkantzia gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz edo arriskutsuen zamalanak, bai eta horiek erabiltzeko espezialitatea eskatzen dutenak ere, gaia erregulatzen duten xedapen espezifikoek gidatuko dituzte.
- f. Zamalanak egitean oinezkoentzat edo ibilgailuentzat arriskuren bat egonez gero, eremua babestu eta seinalezatu behar da, indarrean dagoen araudiari jarraiki.
- g. Baimendutako Gehieneko Masa mugatuko da bide motaren arabera eta eremua kontuan hartuta (lehentasunezko arreta bideak).
Oin berriko eraikinak eraikitzean, botatzeko obretan, berritzeko obretan (osoa denean edo zatizkoa), indusketa lanetan, eta abar, hirigintza lizentzia behar dutenean, obraren barrualdean zamalanak egiteko den leku bat daukatela egiaztatu behar dute obra lizentzien eskatzaileek. Hori egiterik ez dagoenean, obra dela-eta bide publikoaren erreserba eremuak emango ditu Udalak, eskatzaileak eskaera arrazoiturik, eta eskatzaileak egiaztatu beharko du...

II. KAPITULUA.- GELDITU ETA APARKATZEARI BURUZ

Gelditzea eta aparkatzea, arau orokorrak.



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

Herri barruko bideetan gelditu eta aparkatzearen araubidea erregulatzen da, aparkaleku publikoak zuzen banatu eta txandatzera bateragarri egiteko, ikusirik aparkaleku gutxi dagoela, ibilgailu bolumen handia dagoelako; horrela, herri barruko bideetan gelditzeko eta aparkatzeko diren baliabideak hobetuko dira.

47. Artikulua.- *Herri barruko bide batean ibilgailu bat gelditu eta aparkatu behar da ahalik eta gehien hurbilduz ibilgailua galtzadako eskumako ertzerara, noranzko bakarreko bideetan izan ezik, ezker aldean ere gelditu edo aparkatu daiteke-eta, betiere kalearen zabalerak uzten badu zirkulatzen ibilgailuak kaletik. Edozelan ere, debekatuta dago behar den lekua baino gehiago hartzea eta 25 cm baino gehiago uztea espaloiko ertzaren eta ibilgailuaren gurpilen kanpoaldeko azaleraren artean.*

Arau hori dela-eta egindako arau-haustea arina izango da.

48. Artikulua.- *Zeharbidean ibilgailu bat gelditu eta aparkatu behar da beti galtzadatik kanpo, haren eskumako aldean eta bazterbidearen zati erabilgarria libre utziz.*

49. Artikulua.- *Gelditu behar da nahiz aparkatu behar da ibilgailuak oztopatu ez dezan zirkulazioa, eta arriskurik sortu gabe bideko gainerako erabiltzaileei; batez ere zelan uzten duen zainduko du eta mugimenduan jarri ez dadin gidaria ez dagoenean bertan.*

50. Artikulua.-

- a. Erabat debekatuta dago herri barruko bideetan BGM 3.500 kg-tik gorako ibilgailu oro aparkatzea, baimendutako eremu hauetan izan ezik: Kataideko eta Markulete eta Etxagibel Notarioa kaleko industrialdeetan.
- b. Ezingo da aparkatu bide publikoetan ibilgailu motordunetik bereizitako atoirik, ez autobusik, traktorerik, karabanarik edo baimendutako gehieneko pisua 3.500 kg-tik gora duen ibilgailurik, udal agintzariak egokitu ditzakeen lekuetan eta aldietan izan ezik.
Autokarabanekek, jeneralean, lerroan aparkatzeko baimena duten eremuetan eta adierazitako perimetroan. Baterian aparkatu ahal izango dute aparkalekuan adierazitako perimetroa gainditzen ez dutenean eta galtzadan sartzen ez direnean bakarrik.
- c. Ibilgailu batek ezingo du aparkatu bide publikoaren leku berean, etenik gabe, elkarren segidako 20 egun baino gehiago.
- d. Autobusek, bai herri barrukoek bai herriz kanpokoek, bidaiariak hartu edo utzi ahal izango dituzte udal agintaritzak berariaz zehaztu eta baimendutako geltokietan bakarrik.
- e. Autobusek ezingo dira geldi egon ezarritako geltokietan bidaiariak hartu edo uzteko behar duten denbora baino gehiago.

Arau hori dela-eta egindako arau-haustea arina izango da.

III. KAPITULUA. EZINTASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO APARKALEKUA.

51. Artikulua.- Ezinduek bakarrik erabiltzeko seinaleztatutako eremuetan, aurrealdeko haizetakoan indarrean dagoen aparkatzeko txartela jarrita duten turismoek eta ibilgailu misto moldagarriek bakarrik aparkatu ahal izango dute, txartelaren atzealdea kanpotik irakurtzeko moduan eta Arrasateko udaltzainek aztertzeko moduan; txartel hori definituta dago ezintasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela erregulatzen duen abenduaren 5eko 256/2000 DEKRETUaren I. Eranskinean eta Europako Batasuneko ereduari moldatuta dago.

52. Artikulua.- Aparkatzeko txartela erabiliko da, pertsona titularrak berak gidatzen duenean ibilgailua edo pertsona titularra bera ibilgailuan eramaten dutenean bakarrik.

53. Artikulua.- Hartarako adierazitako lekuetan eta debekatuta dauden aparkalekuetan ere aparkatzeko balioko du aparkatzeko txartelak, txartelaren titularra utzi edo jasotzeko bakarrik ezinbesteko denbora batean eta salbuespen hauekin:

- Ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioa oztopatu edo arriskuan jartzen diren lekuetan.
- Oinezkoen eremuetan, andenetan edo espaloietan eta oinezkoen pasabideetan.
- Gelditzeko debekua duten lekuetan.
- Ibiak edo larrialdietako irteerak oztopatzen duten lekuetan.



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

- Zirkulaziorako erreiak murrizten dituzten espazioetan ("bigarren ilaran aparkatzea").

54. Artikulua.- Aparkatzeko txartela erabiltzeko, lehenago azaldutako baldintzetako baten bat bete ezean, azaroaren 21 eko 1428/2003 Errege Dekretuaren 94.2.d artikulua arau-haustea izango litzateke, eta ibilgailua kendu, martxoaren 2ko 339/90 LEDren 85.1.e artikulua araberan.

IV. KAPITULUA ERABILTZAILERAKIN BATZUEN ZERBITZURAKO BAKARRIK ERRESERBATUTAKO BIDEEN ZATIAK.

55. Artikulua.- Aparkatzeko egokia den galtzadari eragiten dioten obrak, jolas, aisialdi, kirol ekintzak, ekitaldi politikoak edo jai ekitaldiak egiteko, Udal Agintaritzaren baimena lortu eta gero, seinaleak jarri ditu enpresa adjudikaziodunak, obra edo dena delakoa pribatua denean, eta Udaltzaingoa gainerako kasuetan, aparkatzeko debekua (R-308) erakusten duten seinale zehatzak jarri, obra edo ekitaldia hasi baino 48 ordu lehenago, eta neurri hori noiz hasiko den ageriaraziko du. Ekitaldi horretan bertan eragina izan duten ibilgailuen akta egingo du Udaltzaingoa, eta haien titularrak edo gidariak behartuta egongo dira handik eramaten. Aparkatzeko debekua erakusten duten seinaleak jarri eta geroago aparkatutako ibilgailuak udaleko garabi zerbitzuak eramango ditu, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Seguratasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzen duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 85.1.f. artikulua araberan, kontuan izanik egokitu lekizkiekeen zigorrek ezarri dakizkiekeela.

56. Artikulua. Obra sustatzailea edo obraren adjudikazioduna baliabide urriak dituzten auzokoen komunitateak edo enpresak direnean, Udaltzaingoa komodatu gisa utziko ditu exijitutako seinaleak.

57. Artikulua.- Aparkatzeko debekua duten seinaleak jarri aurretik lekuan behar bezala aparkatuta zeuden ibilgailuak, horien jabeak non dauden jakin gabe, ibilgailuen udal gordailura eramango dituzte edo hurbilen dagoen aparkaleku egoki batera, baina ezingo dute jaso ezein kopururik sortutako tasengatik.

58. Artikulua.- BESTE JARDUN ARRAZOI BATZUK

Halaber, salbuespenez, , ibilgailuen udal gordailura edo hurbilen dagoen aparkaleku egoki batera eraman ahal izango dituzte bide publikoan zuzen eta egoki aparkatutako ibilgailuak, 48 ordu baino txikiagoa den epean libre uzteko beharra dagoenean hartutako eremua, nahiz eta ez egon arau-hausterik ez ordaintzeko obligaziorik, eta kasu hauetan:

- Behar bezala baimendutako ekitaldi publiko bat dela-eta okupatzekoa den leku batean aparkatuta dagoenean.
- Bide publikoan garbiketa, konponketa, egituren muntatze, mantentze lanak egin edo seinaleak jartzeko beharra dagoenean.
- Larrialdiren bat dagoenean, behar bezala arrazoitua.

Halako kasuetan eta 56. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe, ibilgailuaren titularra bilatu beharko da, handik eraman dezan; ezinezkoa bada, kendu egingo dute handik. Geroago, ibilgailuaren titularrari jakinarazten saiatuko dira, handik eraman izanaren arrazoien berri emateko.

59. Artikulua.- Administrazio organo eskudunak, seinale egokien bidez, elkarrekin edo herri entitateen mendeko erakundeek bakarri erabiltzeko eremuak edo aparkalekuak erreserbatu ahal izango ditu.

V. KAPITULUA.- IBI.

60. Artikulua.- "IBI"tzat joko dugu halakotzat seinaleztatutako bide publikoaren eremua, ondasun higiezin bateko ibilgailuen sarrera-irteera osatzen duena; hori libre dago oztupoetatik era iraunkorrean. Ibi seinale bertikalarekin batera seinale horizontal bat dagoenean, zigzag erako marka hori bat, ibiaren eragin eremua seinaleak hartze duen esparrura hedatuko da. 3 metroko edo 3 metro baino gutxiagoko zabalera duten galtzadetan, IBI seinalearen eragin eremua hona hedatuko da, seinale horren aurreko galtzadaren kontrako aldera, ondasun higiezineko ibilgailuen sartu-irteneko maniobrak errazteko.

VII. TITULUA.- BEHIN-BEHINEKO NEURRIEZ ETA BESTE NEURRI BATZUEZ.

I. KAPITULUA. ERAMATEA ETA IBILGETZEA

61. Artikulua.- Ibilgailua ibilgetzea.

1. Ibilgailua ibilgetu daiteke halakoetan:

- Ibilgailuak zirkulatzeko administrazio baimenik ez duenean, bai lortu ez duelako bai deuseztatu egin dutelako, indarraldia galdu izan deklaratzegatik.



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

- b. Ibilgailuak akatsak dituenean, bide segurtasunerako bereziki arriskutsuak direnak.
- c. Gidariak edo pasaiariak babes kaskorik erabiltzen ez duenean, nahitaezkoa den kasuetan.
- d. Martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren artículo 12.2 y 3ak aipatzen dituen probak egiteari uko egiten dionean, edo proba horiek emaitza positiboa ematen dutenean.
- e. Ibilgailuak nahitaezko asegururik ez duenean.
- f. Denbora larregi daramanean gidatzen edo gutxitzen dituenean atsedendaldiko denborak, betiere arauz ezarritako denboren %50 baino handiagoan, gidaria beste batek ordeztu duenean izan ezik.
- g. Ibilgailuaren gehiegizko okupazio bat gertatzen denean, baimendutako plaza kopurua %50ean igotzea denean, gidariarena kontatu barik.
- h. Ibilgailu motaren arabera arauz baimendutako gas, ke eta zarata mailak gainditzen dituenean ibilgailuak.
- i. Zentzuzko zantzuak daudenean, kontroleko tresnetan manipulazioa egon dela erakusten dutenak.
- j. Ibilgailuak trafiko agenteen eta irudiak hartuz kontrol baliabideen zaintza saihesteko mekanismoak edo sistemak dituela antzematen dutenean.
- k. Arau-hausleak egiaztatzen ez duenean legezko bizilekua duela Estatuan, agente salatzaileak isunaren kopurua ezarriko du behin-behinekoz eta, zenbatekoa jarri ezean, agente salatzaileak adierazitako lekura eramanez beharko du gidariak eta han ibilgetu. Dirua jarri ahal izango du kreditu txartelaz, edo eskudirutan, eurotan, eta, kasu guztietan, kontuan hartuko da 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuan [artículo 80](#), aurreikusitakoa, hasieran ezarritako isuaren %50 murrizteko aukerari buruz.

Ibilgetzearen arazoia bukatzen den unean kenduko zaio ibilgetzea.

H, i eta j paragrafoetan, I atalean aurreikusitako kasuetan, ibilgetzea kenduko zaio kasu honetan bakarrik, ibilgailua agintaritzako agenteak izendatutako tailer batera eramanez eta gero, tailerrak ziurtatzen duenean kenduta duela sistema edo detektatutako manipulazioa edo baimendutako mailak ez dituela gainditzen.

2. I ataldean, e paragrafoan, jasotako kasutan, texto refundido de la Ley sobre Responsabilidad Civil y Seguro en la Circulación Vial, aprobado por Real Decreto Legislativo 8/2004, de 29 de octubre.an xedatutakoari jarraituko zaio.

3. Agintaritzako agenteek adierazitako lekuan ibilgetuko da ibilgailua. Ondorio horietarako, agenteak ibilgailuko gidariari adierazi ahal izango dio jarraitzeko zirkulatzen adierazitako lekuraino.

4. Ibilgailuaren ibilgetzea dela-eta sortzen diren gastuak, elementu mekaniko batez —zepoa—, arau-haustea izan zuen gidariaren kontura joango dira. Hala izan ezean, ohiko gidariaren edo errentariaren kontura joango dira eta, haiek izan ezean, titularraren kontura. Gastuak ordaindu egin behar dira, ibilgetzeko neurria kendu aurreko baldintza moduan, kontuan izanik defendatzeko eskubidea duela eta aukera duela gastu horiek jasanarazteko Administrazioak neurri hori hartu izana eragin zuen arduradunari.

I. atalean, h, i eta j paragrafoetan aurreikusitako kasuetan, ikuskatzen gastuak salatuaren kontura joango dira, arau-haustea egiaztatuz gero.

5. Ibilgetutako ibilgailua errentamendu erregimenean erabiliz gero, ibilgailua ibilgetu beharrean ibilgailua erabiltzeko debekua izango du arau-hausleak.

62.-. Artikulua.Ibilgailua eramanez eta gordailutzea.

1. Trafikoaren kudeaketako ardura duen Agintaritzak, hura egiteko beharturik dagoenak egin ezean, ibilgailua eramanez ahal izango du kaletik eta gordailutu ahal izango du izendatutako lekuan, kasu hauetan:

- a. Baldin eta arriskugarria bada, nahasmen larriak sortzen badizkie ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioari edo zerbitzu publikoren baten funtzionamenduari edo ondare publikoa hondatzen badu..
- b. Martxan jarraitzea galarazten duen istripua denean.
- c. Ibilgailua legez ibilgetuz hura ibilgetzeko leku egokirik ez dagoenean, ibilgailuen edo pertsonen zirkulazioa oztopatu barik.
- d. 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren artículo 84an xedatutakoaren arabera ibilgailu bat ibilgeturik, 24 ordu pasatu eta gero, ibilgetzea sortu zuten arazoak bukatzen direnean.



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

- e. Ezintasuna duten pertsonak erabiltzeko gordetako aparkalekuen eremu moduan udal agintariak egokitutako lekuetan aparkatuta dagoenean ibilgailu bat, baimena ematen dion bereizgarria edo seinalea jarri gabe.
- f. Zirkulaziorako edo erabiltzaile jakin batzuen zerbitzurako bakarrik erreserbatutako erreietan edo bideetako zatietan eta zamalanak egiteko erreserbatutako eremuetan aparkaturik dagoenean ibilgailu bat.
- g. Udal agintaritzak ordu mugatuz estazionamendu moduan egokitutako lekuetan estazionaturik jarraitzen duenean ibilgailu batek, ordu mugarekin baimena ematen dion bereizgarria edo seinalea jarri gabe, edo udal ordenantzan ezarritakoaren arabera, ordaindutako denbora baino hiru bider gehiago pasatzen duenean.

2. Lapurreta denean edo titularraren borondatearen aurka ibilgailuaren beste erabilera era batzuk direnean izan ezik, behar bezala justifikaturik, titularraren, errentariaren edo ohiko gidariaren kontura joango dira aurreko atalak aipatzen dueneko ibilgailua eramatearen ondorioz sortzen diren gastuak, eta, kasuaren arabera, ordaindu egin beharko dituenak ibilgailua itzuli aurretik baldintza moduan. Edozelan ere, eskubidea du errekurtsioa egiteko eta aukera du gastu horiek jasanzatuzko istripuaren arduradunari, ibilgailua bertan behera uztearen arduradunari edo ibilgailua eramatea ekarri duen arau-hauslearen arduradunari.

3. Administrazioak, 24 orduko epean, ibilgailua eraman eta gordailutu izana jakinarazi behar dio titularrari. **helbide elektronikoaren bidez baino ez zaio jakinaraziko, Bideko Helbide** Elektronikoaren bidez, titularrak halakorik edukiz gero.

II. KAPITULUA ARRISKUA SORTU ETA ASALDATU EGITEN DUTEN IBILGAILUAK EDO UDAL ONDAREA HONDATZEN DUTEN IBILGAILUAK.

63. Artikulua. - Ibilgailu bat aurreko artikulua "a" puntuan zehaztutako egoeran egongo da eta, hortaz, justifikatuta egongo da handik eramatea:

- a. Ibilgailuaren eta galtzadaren bestaldeko ertzaren edo galtzadako luzetarako marka zeharkaezin baten arteko distantzia hiru metrotik beherakoa denean edo, edozein kasutan, beste ibilgailu batzuen iragaitea eragozten duenean.
- b. Zirkulazioan sartzea galarazten dioenean behar bezala geldituta edo aparkatuta dagoen beste ibilgailu bati.
- c. Ondasun higiezin batera pertsonak edo animaliak, edo zuzen seinaleztatutako ibi batean ibilgailuak, irten edo sartzeko erabilera normala oztopatzen duenean,
- d. Ezindu fisikoentzako egokitutako pasabideen erabilera normala oztopatzen duenean.
- e. Trafikoa bideratzeko mehelinetan, leku bereizleetan, oinezkoen babesguneetan edo beste elementu batzuetan oztopatzen duenean.
- f. Dagokion seinaleak baimendutako biratzea galarazten duenean.
- g. Zama-lanerako gunen baten aparkatzen duenean, erabilera orduetan.
- h. Gidaririk gabe bigarren ilaran aparkatzen duenean.
- i. Garraio publikoaren geraleku batean, seinaleztatua eta mugatua, aparkatzen duenean.
- j. Urgentziako eta segurtasuneko zerbitzuentzat berariaz gordetako gunetan aparkatzen duenean.
- k. Lehentasunezko arreta bide publikoan debekatuta dauden gunetan, zehatz seinaleztatu daudenak, aparkatzen duenean.
- l. Galtzadaren erdian aparkatzen duenean.

Aurreko paragrafoetan sartuta ez badaude ere, arrikutsuak diren geraldak edo aparkaldiak edo oinezko, ibilgailu edo animalien trafikoa larriki oztopatzen dutenak.

III. KAPITULUA IBILGAILUAREN HONDAKINEN TRATAMENDUA.

64. Artikulua.- Trafikoa kudeatzeari buruzko Administrazio eskudunak ibilgailua eramateko agindu dhal izango du, Ibilgailuen Tratamendu Instalazio Baimendu batera eramateko, geroago suntsitu eta deskontaminatzeko:

- a. Hilabete bi baino gehiago igaro direnean Administrazioak ibilgailua ibilgetu edo bide publikotik eraman eta gordailatu duenetik, ibilgailuaren titularrak alegaziorik egin gabe.
- b. Hil bat baino luzeagoa denaldi batean aparkatuta egonez gero leku berean eta akatsen bat duenean ezinezko egiten duena hura eramatea bere kabuz edo matrikulazio plakak faltan dituenen.
- c. Edozelan ere, ibilgailu bat bere kabuz ezin dela mugitu kontsideratuko da, hemen zehazten ditugun baldintza teknikoetako bi edo gehiago ez dituenen:



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

- I. Ez dituenean **anexo** lan ezarritako atzerako ispiluak, 2822/1998 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duena..
- II. Ez dituenean jarlekuak, gidariarena edo gidariarekin doanarena, erresistentziaz ibilgailuaren egiturari atxikita.
- III. Gurpiletako bat ez duenean edo pneumatikoak betetzen ez dituenean zirkulatzeko gutxienezko baldintzak.
- IV. Ibilgailuak ez duenean haizetakorik edo hausturak dituenean, bidea argi ikusten uzten ez dutenak.
- V. Mekanismo egokirik ez daukanean gidariak ibilgailuaren direkzioa mantentzeko moduan eta erraz, azkar eta segurtasunez aldatzeko moduan.

Ibilgailua eramateko agindua eman aurretik, Administrazioak errekerimendua egingo dio ibilgailuaren titularrari eta ohartaraziko dio, hil bateko epean kendu ezean, Tratamendu Instalazio Baimendura eramango duela.

65. Artikulua.- Komenigarritzat jotako kasuetan, alkateak edo dagokion agintariak, hark delegatuta, ibilgailua suntsitu egin beharrean trafikoa zaindu eta kontrolatzeko zerbitzuei adjudikatzea erabaki ahal izango du.

-VIII. Titulua

I. KAPITULUA. ZIGOR PROZEDURA

66. Artikulua.- Instrukzio eta zigor organo eskudunak

Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko arau-hausteengatik irekitako espedienteen instrukzioa udaltzainburuak egingo du eta, bukatutakoan, dagokion erabakia emango du alkateak.

Udaltzainburua errefusatz gero edo hark uko eginez gero horri, instrukzioa udaltzaingoko koordinatzaileak/buruordeak egingo du, eta azken-azkenean alkateak izendatuko udaltzaingoko lehen udaltzain batek.

67. Artikulua.- Espedienteak Administrazio eskudunari helaraztea

Herri barruan egindako arau-hausteak, haiek zigortzea alkateari ez dagokionean, udaltzainek salatuko dituzte eta instruktoreak bidaliko dizkio administrazio eskudunari.

68. Artikulua. - Gidatzeko baimenak eta lizentziak etetea eta kentzea

Diru -zigorraz gain, gidatzeko baimena edo lizentzia eten edo kentzea ekarri dezaketen arau-hausteengatik irekitako zigor espedienteak, betiere portaera batengatik zigorra udal eskumenekoa bada, udal organo eskudunek erabakiko dute eta egingo dute instrukzioa. Egokitutako erabakian, alkateak espediente agintaritz eskudunari bidaltzea erabakiko du, arau-hauste larriak izanez gero, erabaki dezan egokia den edo ez etetea edo kentzea edo, arau-hauste oso larriak izanez gero, eten edo kendu "iezaion"

II. KAPITULUA ARAU-HAUSTEAK

69. Artikulua.- Legearen aurkako egintzak edo ez-egiteak, 339/1990 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 2koa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzen duena, arauz garatuak bere kasuan, administrazio arau-hausteen izaera izango dute eta zigortuko dira hor zehaztutako kasu, era eta neurrian.

Egintzek edo ez-egiteek zigor legeetan tipifikatutako delitu edo hutsegite izan daitezkeenean, lege horretako artículo 72an xedatutakoaren esanetara egongo da.

70. Artikulua.- Aurreko atalak aipatzen dituen arau-hausteak honela sailkatuko dira, arinak, larriak eta oso larriak.

III. KAPITULUA ZIGORRAK

71. Artikulua.- Arau-hauste arinek 50 euroko zigorra izango dute; larriek 200 eurokoa; eta oso larriek 500 eurokoa. Edozelan ere, abiadura mugak errespetatzea oinarri duten arau-hausteek Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzen duen 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuko Legearen Anexo IV an aurreikusitako zenbatekoaren zigorra izango dute.

72. Artikulua.- Lehenago xedatutakoaren kalterik gabe, zigorrak jartzean hauek hartu behar dira kontuan:



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

- a. La multa por la infracción prevista en el 339/1990 LEDren artículo 65.5.jan aurreikusitako arau-hausteagatik jarritako isuna izango da hasieran izandako arau-haustearentzat aurreikusitakoaren bikoitza, eta hirukoitza, arau-hauste larria edo oso larria bada.
- b. 339/1990 LEDren artículo 65.5.han jasotako arau-haustek 6.000 euroko isuna izango du.
- c. 339/1990 LEDren artículo 65.5.han jasotako arau-haustek 3.000 euroko isuna izango dute.

IV. KAPITULUA ARAU-HAUSTE LARRIGARRIAK.

73. Artikulua.- 339/1990 LEDren [artículo 67.1](#)an ezarritako isunen diru-kopurua %30 gehitu da 339/1990 LEDren 68. artikulua aplikatzean, kasu hauetan:

- a. ibilgailu motordunak, motor bizikletak edo bizikletak gidatzea Ordenantza honetako helburuko bideetatik, botatako arnaseko litroko 0,50 miligramo alkoholetik gorako tasarekin edo litro odoleko gramo bat alkoholarekin edari alkoholdunak hartuz edo bere organismoan sartuz psikotropikoak, estimulatuzaileak edo antzeko beste substantzia batzuk, horien artean barne hartzen direlarik, edozein kasutan ere, arriskurik gabe gidatzeko egoera fisiko edo mental egokia aldatzen dituzten medikamenduak edo beste substantzia batzuk.
- b. Ezintasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela erabiliz ezintasuna duten pertsonak erabiltzeko erreserbatutako aparkatze eremuetan turismoa edo ibilgailu misto egokitua aparkatzea, titularra hilda dagoenean, titularra bertan ez dagoenean, titularra ospitalean edo zaharren egoitza batean sartu dutenean.
- c. Ezintasuna duten pertsonentzako jatorrizko txartela ez erabiltzea edo edozelan hura manipulatzeko.
- d. Kasu guztietan, arau-hausleak behin eta berriro egiten duenean. Behin eta berriro hausten da araua, arau-hauslea, urte bateko epean, zigortu duenean Arrasateko alkateak, hirutan edo gehiagotan.

74. Artikulua.- 339/1990 LEDren 65.6 artikuluan aurreikusitako arau-hausteetako batetik kalteak sortuz gero ondasun higigarri edo ondasun higiezin, arduraduna 3.000 €ko zigorra jasoko du eta, gainera, hori lehengo eran uzteko edo konpontzeko kostua hartuko du beregain, jabetza publikoko ondasunak direnean.

75. Artikulua.- 339/1990 LEDren 65.6 artikulua arau-haustea egitetik, zuhurtziagabekeria larri baten ondorioz, 10/1995 Lege Organikoaren 147. artikulua 2. atalean aurreikusitako lesioren bat edo hiltzea, arduradunak 6.000 €ko zigorra izango du.

V. KAPITULUA

IBILGETZEKO EDO ZIGILUA JARTZEKO AGINDUAK HAUSTEA.

76. Artikulua.- Ibilgailuak ibilgetu edo zigilua jartzeko aginduak hautsiz gero, arau-hauste larria izango da eta 500 €ko zigorra izango du, tokiko gobernua modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 139. artikulua araberaren arabera.

77. Artikulua.- Ezintasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela erabiltzea, plantak eginda, guztian edo zati batean, okerrera eramaten duenean egiazko txartela izatea edo oinarriko elementuren batean edo baldintzaren batean aldaketaren bat egitea, kontuan izanik erantzukizun penal dagoela agiri ofiziala faltutuz gero, arau-hauste arina izango da eta 500 € arteko zigorra izango du, tokiko gobernua modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 139. artikulua araberaren arabera, eta txartel hori kenduko diote eta txartela egin duten udaleko zerbitzu teknikoaren eskura egongo da.

XEDAPEN INDARGABETZEAILA.

Indargabetuta dago, batetik, hiri izaerako bide publikoetan erabilerak, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzeko Ordenantza eta, bestetik, Udalak, udalbatzarrean, 2002ko urriaren 7an onartu zuen Trafikoari, Ibilgailu motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruz Udalak zehatzeko ahala erabiltzeko prozedura.

LEHEN AZKEN XEDAPENA



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

Ordenantza honetako V. TITULUAREN KAPITULU BAKARRA indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta sei hilera.

BIGARREN AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egunera.



Esp.-kodea: 2014SAPL0002

I. Eranskina

Udalaren eskumenaren lurralde mugak

Bergararantz:

- Musakola auzoan dagoen Eroski merkataritza zentrora joateko biribilgunea.
- Nafarroa etorbidearen eta Etxagibel notarioa kalearen arteko bidegurutzea; bera barne.

Arefxabaletarantz:

GI-2620 errepideko 21,200 km-an dagoen biribilgunea, Takoloko biribilgunea, bera barne.

Aramaiorantz:

GI-2620 errepideko 19,350 km-an dagoen biribilgunea.

Elorriorantz:

Bizkaia etorbidea, GI-3551 errepideko 0 km-a.

Auzoak:

Udala auzorantz: GI-3552ko 0 KP

Bedoña auzorantz: GI-3554ko 0 KP

Udal eskumeneko bideak, kaleak eta auzoak.

Kaleak:

